



uk

255. zenbakia / 2014ko uztailaren 10a

OLGETAN SOLAS

ERANDIOKO JALETAN 2014

Familia giroan ondo pasatzeko kirol-jolasak

FAOETA (ekainak 7)
ERANDIOGOIKOA (ekainak 20)
KUKULARRA (ekainak 29)*
ARRIAGA (uztailak 6)
GOIERRI (uztailak 13)
ASUA (uztailak 19)
ASTRABUDUA (abuztuak 9)
SANTIMAMI (abuztuak 18)
ALTZAGA (abuztuak 28)
ENEKURI (irailak 13)
LUTXANA (irailak 20)

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.erandiokoeuskarazerbitzua.com
euskara@erandioko-udala.net - 944890128

Erandoio Elizateko Udala

kulki kultura eskola

BFA DFB Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturako Saldia Departamento de Cultura

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando Llamas, K.Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Non zer

4. PLAZA. K.Olate
5. IRUDIA. Unquinesaren eraitea.
6. FACEGUK. AK-k ez du onartzen frackinga debekatzea, zer iritzi?
7. LEHEN ETA ORAIN. Lutxanako metro geltokia (Erandoio), 1985.
8. URIBITAKORA. Itxaso Paia Ruiz.
9. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. ELKARRIZKETA. Barbara Pla Vengué.
11. ERRETRATUA. Ima Galindez Zuberogoitia.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandoio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Martiartuko jauna antzeziana.
28. ARGAZKIA. La Perla bainuetxea.
30. BERBETAN. Maritxu Arroyo Cruz.
34. FOTOGRAFIA. Gari Bilbao Bollado.
40. SAKONEAN. Kantauriar itsas zaldiak berreskuratze-lanean Getxon.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Arrakalak dokumentala.
43. MUSIKA. Txapel Reggae jaialdia, Armintzan.
44. LIBURUAK. Eako Poesia Eguna.
45. KIROLAK. Maddi Aalla Rotaetxe.
46. JENTILKOKA. Lamiak.
47. EUSKARA eta ERAKUNDEAK. Euskararen sustapena eskualdean.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Besamelezko ogi-lorea.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Sopeloztarrak paella txapelketan, 1965 inguru.
54. AITORMENAK. Joseba Irazoki.

Azala: Gari Bilbao Bollado

www.ukaldizkaria.biz



30 Maritxu Arroyo Cruz

Berbetan
 Bizilurreko kideagaz jardun dugu aurkeztu berri duten *Bide Berriak: elikadura burujabetza* dokumentalaz.



11 Ima Galindez Zuberogoitia



54 Joseba Irazoki

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

K.Olate

Antzuola (eta II)

1111: hori da ekainaren 8ko eguerdian Gure Esku Dago-ko militante prestuen kontakigailuek 34. kilometroan zenbatutako algotar kopurua; 2222 esku elkarri lotuta, erabakitzeko eskubidearen aldeko zerrenda alaia osatuz Deskarga errearen alboko kamioan.

Erkidetasun egun zinez ederra bizi izan genuen; eta ederragoak ere biziko ditugu egun bateko esku ematea eguneroko elkarlan bihurtzeko gauza bagara, herri libre bat –hots, herri normal bat– eraikitzeko; orduan bai esan ahalko dugu –militante prestu horietako bati kenduko diot aipua– Ekainaren 8koa “deskonkistaren” zero ordua izan zela. Hala biz.

Beste kontu bat dakart, dena dela, gaurko “Plazara”. Abiadura Handiko Triskantzak narriatutako 34. kilometrotik herri-gune apainera joan-etorritxo egin, eta udaletxe aurrealdeari erreparatu bazenioten, agian hautemango zenuten armariak eskaintzen duen figura bitxia: errege bat bere tronuan, koroa buruan, ezpata eta zetrea eskuetan, eta kate lodiz estekatutako bilurra lepoan. Iradokizun esanguratsua Juan Karlos Borboikoak bere abdikazioa iragarria zuen asterako!

Badirudi errege estekatua Gipuzkoako armari zaharretik hartu zuela Antzuola-koak; ez zion, ordea, probintziari jarraitu honek, bilurra eta katea kenduta, Gaztelako koroarekiko menpekotasun adierazgarri bihurtu zuenean armarriko erregea.

Heraldika eta historia kontuak gorabehera, gaur-gaurkoa iruditzen zait antzuolarraren armarriko figura, erretiratu berri den erregearen lepoan bilurra ikusteko ikara izan baita Espainiako botere sistema asaldatu duena, hainbestearino non lardaskeria juridiko eta politiko itxuragabeaz baliatu den Francok izendatutako oinordeko esku-luze eta brageta-arinaren inguruan inpunitate-hesia betikotzeko.

Itxuragabekeriak are ageriagoan uzten duen erregearen biluztasuna koipe eta lorde jarioz estaltzen saiatu dira, erregearekiko atxikimenduz baino gehiago, haren larrugorritasunarekin batera ez daitezela begien bistan jar hain onuragarri gertatu zaien “trantsizio eredu-garriaren” lotsaizunak, eta urek lehengo bidetik jarrai dezaten Borboi berriaren aroan.

Errege zahar eta berrientzat bilurra edo, behinik behin, bilurrerako aukera eskatzen dugunontzat, ordea, aldarrikatze moduko alegoria delakoan nago Antzuolako armarrikoa. Horregatik, *hashtag* bat proposatzen dut, inork erabili nahi badu, ni neu ez bainaiz Facebook, Twitter eta horrelakoen erabiltzaile: *#Borboiak-AntzuolakoArmarria*. Barka biezadate atrebentzia herri hartako seme-alabek. ○



gu geu

Zeruari begira

Zeruari begira... denbora badoa... Datorrena iragarri gura... Hala emon ditzakegu egunak eta gauak... Eguraldia dela, gertaera bereziak direla... fenomeno!

Datozen hamaika gertaeraren berri duzue orrialdeotan, gertatu direnetako batzuen nondik norakoak ere bai... Eta izarrei edo zeruari begira egin ohi den legez, hainbat amets ere jaso dugu!

Batzuetan denboraren joana azkartzeko beharra izaten dugu; batez ere oporrak hartzekotan gabiltzanean, ezta? Bestelakoetan, denbora gelditzeko nahia sentitzen dugu, benetan momentua gozatu gura dugunean...

Eta bitartekoa bizitza dela dio hainbatek... Horrenbestez, amets egin eta bizi! Hurrengora arte,


UK-ko lantaldea

LAN-ESKAINZA:

ESKUALDEKO KOMUNIKAZIO TALDE BERRIAK KUDEATZAILEA BEHAR DU Sortze-prozesuan dagoen eskualdeko komunikazio talde berria kudeatzaile bila dabil. Hautagaiak beharko lituzkeen ezagutza eta ezaugarriak: kudeaketan edota zuzendaritzan esperientzia nahikoa; kooperatibarentzat helburuak finkatu, exekutarazi eta jarraipena egiteko gaitasuna izatea; administrazioekin eta sektoreko beste eragileekin harreman eraginkorrak garatzea e.a. Ekonomian, enpresen kudeaketan edo antzeko titulazio edo masterren bat duen pertsona baten bila gabilta. 2014ko irailean hasi beharko litzateke beharrean.

Eskaerak aurkezteko: uk@aldizkaria.biz / 2014ko uztailaren 14ra arte / Info+: beharsarea.net

[irudia]



ASTRABUDUA, 2014KO UZTAILA

Azken hondarrak / Unquinesaren gorpuzkiaren azkenetakoak... Astrabudua eta Udondo artean 1939an sortutako enpresa kimikoak 2009 amaieran egin zuen azken hatsa. Lipperheide sendiak zabaldu zuen, Banco Bilbao eta Banco Vizcayaren laguntzagaz; 60ko hamarkadan Dow Chemical multinazional estatubatuarra jabetu zen lantegiaz; azkenean, Tarragonako egoitza lehenetsi, eta bertokoa itxi egin zuen. Geroztik, eremu eta pabiloiak alokatzen, saltzen, eraisten joan dira... desagertu arte. Inguruotan, gaur egun: Astrabuduko metro geltokiko aparkalekua, edo egin asmo ei dituzten etxebizitzak... ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Auzitegi Konstituzionalak ez du onartzen frackinga debekatzea, zer iritzi duzu?



Sopela

Jagoba Arrieta

> **tabernaria**

Oso gaizki iruditzen zait. Ulertezina da enpresa handiek gasa edota petrolio bilatzeko mota honetako iniziatibak aurrera eramatea. Horregaz batera, herrien nahiak alde batera utzita Espainiako Gobernuak azkeneko hitza izatea desagokoa dela uste dut.



Deustua

Gorka Eskudero

> **irakaslea**

Frackinga sistema izugarri txarra da ingurugiroarentzat, dena kutsatzen duelako. Gainera, Espainiako Gobernuak euskaldunon borondatea ez errespetatzea ere oso txarto iruditzen zait. Bi ikuspegi-tatik okerra iruditzen zait.



Sopela

Sergio Otero

> **langabea**

Herriak erabaki behar du bere inguruan zer egiten den edo ez. Frackinga ingurugiroa guztiz kaltetzen duen teknika da, eta herriak erabaki behar du bere inguruan horrelakorik gertatzea nahi duen edo ez. Gobernu zentralak ezin du guregatik erabaki.



Sopela

Aritz Gil

> **funtzionarioa**

Gasa epe laburrera lortzeko sistema bat da, baina baita etorkizuneko belaualdiei dena hondatuta uzten diena ere. Ez dut gustuko. Ez dakit teknika horren inguruko informazio falta dagoen edo ez, baina espero dut herritarrok horren kontra posizionatzea eta esleitutako lizentzia guztiak atzera botatzea.



Sopela

Bertha Gutierrez

> **etxeoandrea**

Frackinga teknika oso suntsizalea da eta, gaur egun gai horri buruz dakiguna dakigula, kontra egin beharko genioke. Kalera irten eta mobilizatu, ahal den heinean; eta instituzioek herritarroi erabakitzeko utzi beharko ligukete, guztion ardura delako, ez soilik enpresa handien interes ekonomikoena.



Algorta

Beñat Azkargorta

> **ikaslea**


Ustiaketa modu oso kaltegarria da eta onura ekonomikoak gutxi batzuek soilik hartuko dituzte. Orain arte herri batzuetan frackingaren kontra hartutako erabakiak itxaropentsuak izan baziren ere, Auzitegi Konstituzionalak kaleratu berri duen sententziaren ondorioz, ez digute beste aukerarik utziko.



Iraganez doa denbora* beti / LUTXANAKO GELTOKIA, 1985

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > klima bete zigor



Gorliz, 2014ko ekaina

Testua: **Itxaso Paia Ruiz** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Errota zahar maitea

Irudi hau ez al zen koloreanitza? Zer da iluntasuna? Lainoa? Geriza? Filtro bat? Errore bat? Zer da? Sarri gisa: argazkilaria begirada grisa.

Uribe Kosta, noski, ez da Bora Bora; begiratuta ere aldi oro gora, eguzkirik ez dago inondik inora, eta irudi hau da horren metafora.

Euskal Herrikoa da "Klima bete zigor", halere, ausartenak berdintsu dabilz hor, bainujantzitan jarri nahi zuten derrigor; egun horretan, behintzat, ez zen erre inor.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45



Info+: www.aitzindariak.eus

.eus > 92 aitzindari

Interneteko Puntu Eus domeinudun 92 gunetako aitzindariak ordezkaturako dute euskal komunitatea sarean, Euskararen Egunean zabalduko den hurrengo fasera bitartean. Aitzindarietatik 46 euskal kulturgintzako elkarteak dira, 23 erakunde publikoak, 22 PuntuEus Fundazioko ki-deak, 14 hedabideak eta 9 enpresak. Hori-en artean batzuk aipatzearen, hauek: Sopolako Udala, Donostiako Udala, Eibarko

Udala, Uztaritzeko Herria, Hendaiako Herriko Etxea, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Udalbiltza, Bilboko Portuko Agintaritza, SPRI SA, ELA eta LAB sindikatuak, Bankoa Crédit Agricole, Laboral Kutxa, Kutxabank, Euskaltel, AEK, EHE, Aranzadi, Athletic, Bertsozale Elkarte, Elhuyar, Deustuko Unibertsitatea, UEU, Ikastolak, Elkar, DYA, Sare, Argia, Naiz, Berria, Tokikom, e.a. ○

aplikazioa > jaiapp

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako jai denen informazio andana ematen duen mugikorerrako aplikazioa sortu dute: jaiapp. Besteak beste, datak, egitarauak, mapak eta garraioen ingurukoak berri ematen du, eta arduradunek diotenez, astero-astero eguneratzen dute. Daborduko 5.000tik gora gailuetara jaitsi da aplikazioa.

Ohi legez, *Google Play* bidez jaitsi daiteke, eta Androiden zein Apple gailuetan

erabiltzeko prestatu dute. Doakoa da eta euskaraz ala gaztelaniaz jartzeko aukera eskaintzen du.

Hala bada, jaiak ospatzen dituen herri horretara zelan heldu, jai egun bakoitzean zer dagoen gozagai, ekitaldien ordutegia, eta joan-etorriko garraio publikoko eskaintzarik dagoen jakiteko are eta eskurago duzue dagoeneko... jai on! ○

twitter kontua ere badute: @jai_app



aplikazioaren irudia

deialdia > LOMCE eta EU2015 erreformen aurka

Uribe Kostako Ikasle Abertzaleak taldeak "LOMCE, Heziberri eta EU2015 ez! Euskal Eskola Nazionala!" goiburuagaz manifestazio-deia egin du hilaren 12rako, 18:00etan Sopolako udaletxean da hitzordua. Antolatzaileek adierazi dutenez, "Eskualdeko hezkuntza eragileok udan herriz herri gure hezkuntza sistema propioaren aldeko dinamikak garatu eta martxan jartzeko konpromisoa hartu genuen aspaldi.

Datozen bi ikasturteetan LOMCE edota EU2015 hezkuntza erreformen aplikaziorri ezekoa eman eta gure herrirako hezkuntza eredu propioa aldarrikatu eta eraikitzen hastea ezinbestekoa izango dugu. Horren harina deitu dugu manifestazioa". Halaber, eskualdeko antolakunde, mugimendu, sindikatu, alderdi politiko, instituzio edo elkarteri atxikitzeko eta topaguneetan parte hartzeko deia luzatu diete. ○



Manifestazioa hilaren 12an izango da Sopolan

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Barbara Pla Vengué > Getxo Rugby Taldeko kirol-zuzendaria

“Kirol-zuzendaritza erronka eta aukera da, eta ez dut alferrik galdu gura”

Getxo Rugby Taldeak kirol-zuzendari barria dauka: Barbara Pla Vengué kataluniarra. Sei urte daroa klubean, rugby-jokalaria da eta Rugby Eskola ere koordinatu du. Datozen urteotan jarrituko dituzten ildoei buruz jardun dugu.



Info+: www.getxorugby.org

—Zelakoa izan da aukeraketa?

—Nahiko denbora daroat Getxon eta beti inplikatu naiz: ume-taldeak entrenatu ditut, Eskola koordinatu dut, eta Jarduera Fisikoaren Zientzietan lizentziaduna naiz, master bat ere egin dut. Klubak prozesua zabaldu zuen eta sei pertsonari proiektu bat aurkezteko eskatu ziguten; eta ni aukeratu ninduten. Proiektua klubaren erabakiak-hartzeari dagokio eta hainbat gai hartzen ditu bere baitan: lehia, kirolarien errendimendua hobetzeko erabakiak, teknikari-formazioa, kirol-psikologia, instalazio-koordinazioa zelai-erabilera, e.a.

—Hurrengo urteotarako zeintzuk dira jarraitu beharreko lan-ildok?

—Hasierako diagnostikoa egiten ari naiz, kluba zein egoeratan dagoen ikusi eta, hortik abiatuta, plan estrategikoa osatzeko eta lan-ildok zehazteko, klubaren helburuari egokituta. Getxo Rugbyk maila altuagoan lehiatu gura du, estatu mailan, ahal dela etxeko jokalaria. Beraz, oinarriko taldeen formazio-ildoak oso garrantzitsuak izango da eta horrek teknikariak prestatzea dakar. Orain prestutasuna badaukate baina, agian, baliabide teknikoak falta dituzte. Bestalde, errendimenduz jarduarituko dugu, jokalariei erraztasunik handienak emonez entrena ahal dezaten.

—Zure karreraren beste pauso bat da?

—Bai, kiroleran lan-boluntario asko dago eta; kirol oso gitxi dago profesionalizata. Klubak aurrerapauso bat egin du il-

do horretan, kirol-zuzendaria edukitzeko apustua eginez. Niretzako ametsa da lan mailan: ez dago baliabide gehiegi eta, agian, ordu gehiago lan egin behar da, baina niretzako erronka eta aukera da, eta ez dut alferrik galdu gura.

—Eskola-koordinazioaren esperientzia baliagarria zaizu lan barrirako?

entrenamenduakaz uztartu ditut, eta badakit zein gogorra den egoera horretan egotea, zuzendaritzak ez laguntzea; erakundeekiko harremani begira daudelako, kirolariari lagundu beharrean errendimendua hobetzen. Hain zuzen ere, arlo horretan indar egin gura nuke kirol-zuzendari gisa.

“Klubarentzat eta niretzat, biontzat aberasgarria da nik errendimendu handiari lotuta jarraitzea”

—Bai, noski, baita entrenatzaile legez aritutako urteak baita emakume-taldeagaz kolaboratzeak ere. Kontua da Eskolan ez nuela izan asti nahikorik buruan neuzkan gauza guztiak garatu ahal izateko. Baina esperientzia atsegina izan zen, jokalaria izandako urte guztiak legez. Espainiar selekzioagaz jokatu dut, ikasketak eta lana

—Jokatzen jarraituko duzu, zelan uztartuko dituzu egiteko biak?

—Lanaldi erdiko konpromisoa daukat: klubak ezin zuen gehiago emon eta nik Olinpiadak ere badauzkat buruan. Alde biontzat aberasgarria da nik errendimendu handiari lotuta jarraitzea eta uste dut ondo uztartu ahalko ditudala arlo biak. ○



“Lehenengo Kantagunean jende nagusia hunkitu zen iraganeko Plentziaz akordatzen zirelako”

Ima Galindez Zuberogoitia > Plentzia... kantari!

Kantatzea. Beste barik. Zuzen edo oker, ozen edo baxu, hori guztia gutxienezkoa da. Plentziako Kantagunea antolatzen duten lagunentzat helburua “bertako euskarazko kanta zaharrak berreskuratzea, eta noski, ondo pasatzea da!”. Berbak Ima Galindez taldeko diruzainarenak dira, ‘Adita’ legez herrian ezagunagoa. Kantaguneak bost urte beteko ditu abuztuaren 30ean, eta aitortu digun legez, hasieran utopikoa iruditzen zitzaion Plentzian horrelako zerbait antolatzea: “Kuadrillako batzuk beste herri batzuetara joaten ginen abestera, eta pentsatu genuen... zergatik ez Plentzian?”. Pentsatu eta egin. Galindez lehenengo Kantagunea antolatzen hasi zen buru-belarri, gaur egun taldeko presidente den Ion Azpiroz batera: “Itzela izan zen, herri guztian auzokideak kantatzen... Jende nagusia hunkitu zitzaigun iraganeko Plentziaz akordatzen zirelako”. Baina urtean behin kantatzeak ez zenez kantatzeko gogoasa, orain urte bi Plentzia Kantari taldea sortu zuten: “15ean behin elkartzen gara Kristo basilizan entseatzeko, eta gero kalez kale abestera!”. Kantuen bidez, herrian giroa sortu gura dute: “Batez ere alde zaharrari bizia emon gura diogu, azken aldian herria batez ere hondartzara eta portura begira bizi delako”. Eta auzokideak, kantakaz pozpozik! “Kalean joaten naizenean, jendeak galdetzen dit... baina gaur ez duzu abestu behar?”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Borrokak Getxophotoko irudietan

Abuztuaren 28tik irailaren 28ra izango da **Getxophoto** argazki-jaialdiaren **zortzigarren** edizioa eta **Borrokak** izango du irudietarako gaia; Christian **Caujolle** da komisarioa

“Libertateen, duintasunaren eta gizakiaren aldeko borrokak” erakutsiko dituzte Getxophoto argazki-jaialdiko irudiek, abuztuaren 28tik irailaren 28ra, **Borrokak** da-eta aurtengo gaia. Mundu osoko hamazortzi argazkilariren lanak ikusi ahalko dira Getxoko kaleetan, Christian **Caujolle** komisario frantsesak aukeratutakoak. Abuztuaren 28 eta 31 bitartean izango dira ekintza garrantzitsuenak.

Argazkilaritza herritarrei hurbiltzeko asmoa dauka Getxophoto jaialdiak, argazkiak modu ikusgarrian erakusten dituelarik. Zortzi urte bete ditu eta **Borrokak** izango ditu hizpide, hilabetez, abuztuaren 28tik irailaren 28ra: **“Lehenengoz, libertateen, duintasunaren eta gizakiaren aldeko borrokak”** erakutsiko dituzte, Jokin Aspuru jaialdiko zuzendariak dioenez.

Edizio honetan mundu osoko 18 argazkilariren irudiak ikusiko dira Getxoko kale eta aretoetan; Christian **Caujolle** komisarioak aukeratu ditu. Argazki gehienak kokatuko dituzte Ereagatik Portu Zaharrerako bidean, baina Algortako aretoek ere hartuko dituzte erakusketak, guztira hogeitaz. Jaialdiak modu originalean erakusten ditu argazkiak: lona erraldoietan, tabernetako edontzi-azpikoetan, e.a.

Hain zuzen, edontzi-azpikoen ibilbidea prestatu dute: Mak Remissa Kanbodiako argazkilariren **Fish and ants** laneko zortzi argazkiak inprimatu eta beste hainbeste tabernatan banatuko dituzte jaialdiak



Ekimenaren aurkezpena, Portu Zaharrean. Argazkia: GetxoPhoto

iraun bitartean. Getxophoto hasi eta aste akabu horretan bertan izango dira ekintza gehienak, abuztuaren 28tik 31ra. Hasteko, **Opening** ekitaldia egingo dute eta bertan izango dira argazkilarietako batzuk. Gainera, hitzaldiak, proiektzioak eta tailerrak ere prestatzen ari dira.

“Gauplaza, Itxialdia eta Kuadrilla ekimenak egingo dituzte, eta tailerra Walter Astrada argazkilariaz”

Berbarako, Walter Astrada argazkilaria ikastaroa eskainiko du abuztuaren 29an, barikuan; besteak beste, World Press Photo saria hirutan irabazi du eta bertako entrenamendu-taldeko kide da. Tailerrean parte hartzeko idatzi ondoko helbidera: getxophoto@getxophoto.com.

Herritarrak eta Gauplaza

Antolatzaileen arabera, aurtengo barritasun nagusia izango da **Gauplaza** ekimena edo argazkiaren gaua. Bestalde eta parte-hartzea bultzatuz, herritarren argazkiak ere erakutsiko dituzte jaialdian: zale zein profesionalek argazkiak igor ditzakete uztailearen 31ra arte ondoko helbidera: getxophoto@gmail.com. Jasotako irudiak proiektatuko dituzte eta horietako batzuk ipiniko dituzte Getxoko hainbat saltokitako erakuslehoetan.

Azkenik, **Itxialdia** eta **Kuadrilla** ekimenak egingo dituzte: **Itxialdia** hausnarketarako eta solasaldirako jardunaldia da; **Kuadrilla**, barriz, jaialdiko lagunen programa da eta hainbat abantaila eskainiko dizkio parte hartzen duenari. ○

Info+: www.getxophoto.com

Egizu selfie bat euskaraz

Lehiaketa euskaltegien matrikulazioa bultzatzeko



Uztailearen 28ra arte bidali daitezke argazkiak

Euskararen erabileran euskaltegiek duten papera sustatzeko **selfie**-lehiaketa abiatu dute Getxoko euskaltegiek, Egizuk eta udalak, ikasturte barrirako matrikulazio-kanpainari begira.

Horrela, parte hartzeko **selfie** bat (nork bere buruari telefonoagaz egindako argazkia) bidali behar da, euskararen edo euskaltegien aldeko esaldi batez (euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntzetan). **Selfie** onenak erabiliko dituzte matrikulazio-kanpainan: kartelak, esku-orriak, e.a.

Argazkiak bidaltzeko azken eguna uztailearen 28a da eta bide bi dago. Internetez www.facebook.com/getxoEuskara gunera edo selfilehiaketa@gmail.com helbidera igor daitezke, eta whatsapp bidez ondoko zenbakira: 688 856 168. Sariak izango dira: sakelako telefono bi eta herriko euskal-

tegiek (udal-euskaltegia, Lauaxeta AEK eta Jose Antonio Agirre) emandako material-sorta; Euskara Zerbitzuko lagunek osatuko dute epaimahaia. Esatea **selfiak** eta esaldiak bazter ditzakeela desegokiak direla uste badu (xenofoboak, emakumeen kontrakoak, e.a.).

Argitu behar da **selfia** bidaltzen duenak 18 urte eduki behar dituela. Adinez txikikoak agertzen badira, gurasoen baimen idatzia bidali beharko da. Argazkiagaz batera ondoko datuak ere bidali behar dira: izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa. Gainera, **selfia** bidaltzen duenak baimena ematen du argazkia eta esaldia 3 urtetan erabiltzeko, betiere, euskara edo euskaltegiatiko matrikulazio-kanpainetarako. ○

Info+: egizu.org

APARKATZEA ETA SALAKETAK ON-LINE ORDAINDU

Internet bidezko zerbitzu barri bi abiatu ditu udalak: Araupeko Aparkamendua eta Udaltzaingoa salaketak ipintzea. Batetik, Araupeko Aparkamendua ordaintzeko zerbitzu telematikoa (AAZ) erabilgarri dago eta parkimetroa bertaratu beharrik gabe ordaindu ahalko da, internetez: aparkatu, aparkaldia luzatu, ordaindu eta kontsumitu ez den aparkaldiko denbora berreskuratu eta salaketak ordain daitezke. Zerbitzua erabiltzeko alta emon behar da ondoko webgunean erregistratuz: telesergetxo.mobi/gestion. Eragiketak, barriz, telesergetxo.mobi gunetik egingo dira. Bestetik, salaketa mota batzuk **on-line** aurkezteko zerbitzua abiatu du Udaltzaingoa. Getxoko jazoerei buruz bakarrik ipin daitezke eta, horretarako, inprimaki bat bete behar da; ondoko gunean eskura daiteke: www.getxo.net/udaltzaingoa. Behin inprimakia beteta, posta elektronikoz igor daiteke edo Getxoko Udaltzaingora zuzenean bertaratu (Alango, 25). Hurrengo jazoerengatik aurkez daitezke **on-line** salaketak: dokumentazioa eta/edo norberaren gauzak galtzeagatik; poltsa, diru-zorroa edo antzekoen lapurretatik; denda batean izandako lapurretatik eta ibilgailuan jazotako lapurretatik.

Info+: www.getxo.net

UDAL-KONTRATAZIOA GAITZETSI DU EHBILDUK

“Gobernu Taldeak udal-kontratazio arloaz egiten duen kudeaketa kaxkara eta iluna” dela dio EHBilduk. Koalizioak dioenez, irailetik maiatzera **“21 faktura bidali behar izan dira Osoko Bilkurara”**, eta horrek **“12 milioi euro baino gehiago kontratutik kanpo ordaintzera behartu du udala”**. Koalizioaren arabera, gainera, **“kasu bitan udalak diru publiko ordaindu beharko ditu interesak zerbitzuak berandu ordaintzeagatik, enpresek jarritako errekurtsioei erantzunez”**. Horrenbestez, EHBilduk adierazi du **“diru publikoa gardentasunez kudeatu behar”** dela, **“areago bizi dugun krisi garaian”**.

Info+: www.getxo.net

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BIZ barne



Punta Galea gastronomia-elkartea > 35 urte lapiko artean

“Ez geneukan lekurik eta lokala erosi genuen txirrindularitza eta gastronomiarako”



Elkarteko hainbat kide Algortako lokalean (Illeta, 10)

Punta Galea txirrindulari-taldeari lokala eskaini guran jaio zen Punta Galea gastronomia-elkartea, 1979an. Daborduko joan dira 35 urte eta gauza batzuk aldatu eta moldatu dituzte: txirrindulari-taldeak lokal berezitua dauka euren aldamenean, elkartean txirrindulakaz sartzea eroso ez zela ohartu ziren-eta. Gaur egun, 50 bazkide inguru dira, gizonak, baina beste hamarrentzako lekua ere badaukate. Elkarte guztietan legez, bazkideek senideakaz eta lagunakaz erabiltzen dute lokala, eta gainera, abesbatza ere sortu zuten duela lauzpabost urte.

—Noiz eta zelan sortu zenuten gastronomia-elkartea?

—1972an, gure semeetako batzuk txirrindularitza zaleak zirenez, eskola sortzea pentsatu zuten. Eskola, hasieran, Faturan zegoen eta bertan sortu zen. Gerora, izen edo elkarte bat behar genuen lasterketetan parte hartu ahal izateko. Lehen urtean Areetako Santa Ana eskolak lagundu zigun, baina 1974an txirrindulari-taldea sortzea erabaki genuen. Hainbat meritu egin behar ziren (lasterketetan parte hartu, e.a.) eta guk bagenezkan. Beraz,

Punta Galea txirrindulari-elkartea sortu genuen orain 40 urte. Baina ez geneukan elkartzeko lekurik eta danon artean lokal bat erostea erabaki genuen, txirrindularitza eta gastronomia elkarte izan asmoz, 1979an. Gauzak aldatu dira eta, orain, elkarte bakoitzak bere lokala dauka, biak elkarren alboan. Horrela jaio zen gastronomia-elkartea eta orain bete ditugu 35 urte.

—Ekitaldi berezirik egingo duzue?

—Oraingoan ez. Duela hamar urte, 25 betetzean, orduan bazkaria egin genuen,

baina oraingoan ez dugu ezer berezirik antolatuko.

—Abesbatza ere badaukazue, ezta?

—Bai, orain dela lauzpabost urte sortu genuen. Santa Agedan abesteko eskatu ziguten eta horrela hasi zen abesbatza.

«Aparta da horrelako elkarte erabiltzeko aukera izatea»

—Eta bestelako ekimenetan ere parte hartzen duzue?

—Gastronomiagaz lotutako lehiaketetan parte hartzen dugu: bakailoan irabazi genuen duela urte bi. Beste herrietara ere badoaz elkarteko kide batzuk Punta Galea ordezkatzuz, adibidez, Bermeora; gastronomia-lehiaketa askotan parte hartu ohi dugu. Hau da, batez ere gastronomiagaz lotuta dago elkarte, baita txirrindularitza elkarteagaz ere.

—Koadroan ikusten dudanez, danak zaretze gizonak?

—Bai, bazkideak gizonak bakarrik gara, baina emakumeak lokalera sar daitezke.

—Gauzak aldatuz doaz eta hori ere aldatzerik ez duzue pentsatu?

—Ez, ohituragaz jarraitzen dugu. Ez dago beste arrazoi berezirik. Emakume batek ere ez du eskatu bazkide izatea edo bere senarrak utzitako lekua hartzea.

—Barikuro bazkaltzen duzue elkartean?

—Bai, lehen afariak egiten genituen gehiago, baina orain bazkariakaz hasi gara: jendea nagusi egin da eta gurago izaten du bazkaria. Egia esan, gehiago erabiltzea gura genuke, baina bazkide asko kanpoan bizi da eta zaila da. Barriz, Algortan bizi direnentzako primerako lekua da herri erdigunean dago-eta. Bazkideentzat aparta da senideakaz eta lagunakaz horrelako elkarte erabiltzeko aukera izatea. o

Paelletarako toldoak

uztailaren 7an eta 8an banatuko dira; eta ez daukatenentzako **zozketa 10ean** izango da



Barikuz izango dira Paellak aurten

Itxas-Argia elkartearen paella-lehiaketa barikuan izango da, ohi legez, uztailaren 25ean. Egun horretarako toldoa daukate nek uztailaren 7an eta 8an jaso dezakete, 19:00etatik 21:00etara, Itxas-Argiaren lokalean (Iturribide 24, behe). Toldorik ez daukatenez, barriz, zozketan parte har dezakete: hilaren 10ean izango da, 21:00-etan (hori ere elkarteko lokalean); zozketarako txartelak 19:00etatik 21:00etara hartu behar dira. Gogoratu Paellak igarota toldoa itzuli behar dela. Prezioak ohi-koak dira: toldo erdia 40 euro eta osoa 80 euro; fidantza, barriz, 25 euro.

Bestalde, muntaia hainbat egunetan

egingo da: uztailaren 12, 13, 19 eta 20an. Lagundu gura duenak 08:00etan egon behar du Itxas-Argiaren lokalean edo 09:00-etan zelaian. Tuboak kentzeko, barriz, lehiaketa-biharamunean lotu dira zelaian, 09:00etan.

Lehiaketarako izen-emotea Paella egunean bertan izango da, 11:30ean. Paellak 13:30etik 14:30era aurkeztu behar dira eta sariak 17:30ean banatuko dituzte. Sari berezia emongo diote parte hartzen duen talde gazteenari: baldintza bakarra da taldekideak 18 eta 30 urte bitartekoak izatea. Ez dadila arroza pasa! o

Info+: itxasargiaelkartea.wordpress.com

FOLKLORE-JAIALDIA UZTAILAREN 21ETIK 23RA

Udaro legez, atzerriko musika eta dantzak iritsiko dira Algortara, XXX. Nazioarteko Folklore-Jaialdia dela-eta. Hiru egunez, uztailaren 21, 22 eta 23an, Hegoafrika eta Errusiako kulturak eta folkloreak ezagutu ahaliko dira: hilaren 21ean, Umuzi Wenkosi (Msunduzitik) taldearen ikuskizuna izango da; hurrengo egunean, 22an, Ipar Osetia-Alaniako Goretz taldearen txanda izango da; eta azkenik, 23an, Itxartu talde getxoxtarraren emanaldia izango da. Hirurek dantzatzeko dute Biotz Alai plazan 21:00etatik aurrera.

Info+: www.itxartu.com

ANTZERKIA KALERA URTENGO DA UDAN

Eguraldi epela baliatuz, antzerkia izango da uztailean eta abuztuan Getxoko kaleetan. Uztailearen 12an, *La risa es bella* lana eskainiko du Circortito taldeak. Abuztuaren 29an, barriz, *Irakurriz* antzeztuko du Shakti Olaizolak. Emanaldi biak izango dira Neguriko Gernika parkean, 19:00etan. *Kale-antzerkia bultzatuz* Eusko Jaurlaritzaren kanpainaren barruko ekimena da.

Info+: www.getxo.net

TERRAZAK PREST IRAKURZALEENTZAT

Letren Terrazak edo Udako liburutegiak zabaldu dituzte eta irakurzaletan hurbiltzen hasi dira. Uztaile osoan egongo dira Gernika parkean (Neguri), Iturgitxi plazan (Algorta) eta Sarri plazan (Andra Mari). Abuztuan, barriz, Areetako Geltokia plazara, eta Algortako Aldapa eta Geltokia plazetara lekualdatuko dituzte; zabalik daude 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era. Gainera, bestelako jarduerak ere egingo dira: uztailearen 18an, pailazoak izango dira Sarri plazan; 29an, surik gabeko gozogintza tailerra Gernika parkean; abuztuaren 4an, Pottoka disko-festa Algortako Geltokia plazan, eta 14an, Tor magoa, aurrekoaren toki berean. Ekimen guztiak hasiko dira 19:30ean eta doakoak izango dira.

Info+: www.getxo.net

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Nerea Guijarrubia > Berbalagun-egitasmoko koordinatzailea

“Hasiara izan da, datorren ikasturtean ere beharrezkoa izango da proiektuagaz jarraitzea”

Gorakada nabarmena izan du Leioako Berbalagun-egitasmok aurten: zeuden taldeak finkatu eta barriak sortu dira. Gainera, Mintzodromoa egin zuten martxoan, herrian lehenengoz. Datorren ikasturterako asmoen barri emon digute.

—Berbalagun talde bigaz hasi zen ikasturtea eta beste bi sortu dira.

—Bai. Hasieran talde bi zeuden, bata Berbalagunena, eta bestea Gurasolagunena. Martxoan Mintzodromoa egin genuen eta, horren ostean, sekulako gorakada emon zen eta jende asko animatu zen Berbalagunera. Ikasturtea amaitu dugu lau Berbalagun taldegez eta Gurasolagun taldegez. Balorazioa positiboa da, ikusita hasieran kostatu zela taldeak osatzea.

—Bestelako ekintzak ere garatu dituzue?

—Saiatu gara hilean behin ekintzak egiten. Herriari aurkeztu genion egitasmoa, umeentzako tailerrak egin dituzte Gurasolagunek, Felix Mugurutzak hitzaldia emon zuen euskal jai egunei buruz, topinimia-ibilbidea egin genuen, *81 amama* dokumentalaren emanaldia Bilgune Feministagaz batera, Mintzodromoa, e.a. Azken horretara 140 pertsona batu ginen, batzuk euskara-ikasleak, besteak herrita-



Berbalagun taldeetako hainbat partaide, Lamia AEK euskaltegian

rrak, beraz oso ondo. Bidea hasi dugu eta datorren ikasturtera begira jende gehiago animatuko dela uste dugu.

—Beraz, lanean hasi zarete hurrengo ikasturteari begira?

—Asmoa da egitasmoagaz jarraitzea. Uste dugu hasiera dela, egindako lanak jarraitzea behar duela eta datorren ikasturtean ere beharrezkoa izango dela proiektuagaz jarraitzea. Udako talde bat sortu da lehenengoz eta hori oso positiboa da; eguazte-

nero elkartuko dira Paddy tabernan, 18:30ean. Irailetik aurrera, espero dugu oraingo taldeek jarraitzea, baita gehiago sortzea ere. Berbalagunak oso pozik daude eta proposamenak egin dituzte datorren ikasturterako. Izan ere, herri nahiko erdalduna izanda, aukera topatu dute euskara praktikatzeko. Parte hartu gura dutenek, irailetik aurrera, gugaz harremanetan jar daitezke: leioa_berba@ae.org edo leioaberba.blogspot.com. ◻

Ertibil Bizkaia erakusketa

Abuztuaren 3ra arte ikus daiteke arte plastikoen erakusketa **ibiltaria** Kultur Leioan



Info+: www.kulturleioa.com

Arte plastikoen erakusketa ibiltaria Leioara iritsi da eta Kultur Leioako erakustaretoan ikus daiteke abuztuaren 3ra arte, egunero. Bizkaiko Aldundiak antolatzen du Ertibil Bizkaia erakusketa. Bilbon hasita, Lekeitio, Barakaldo, Gernika-Lumo, Basauri, Elorrio eta Gasteiz ere bisitatuko ditu, urtarrilean Sestaon amaitzeko. Ekimenaren helburua da sormen-lana egiten duten eta agertzen ari diren artista barriak laguntzea, euren lana bultzatzea eta sustatzea.

Edizio honetan saria jaso dute ondoko artistek: Maria Azcona (Iruñea), *8848 metros* margoagatik (akrilikoa mihise gainean); Kristina Losa (Gasteiz), *Concrete* obragatik (oihal gaineko margoa, akrili-

koa eta transferra erabiliz); eta Oihana Torre (Bilbo) *49 kubo* lanagatik (3 argazkiz osatutako obra).

Hiru horiekaz batera beste 14 lan hautatu dituzte erakusketarako, arte alor guztietan aurkeztu diren obren artean: 141 obra proposatu dituzte 104 artistek. Irabazleak eta Ertibil Bizkaia osatzen duten lanak epaimahai batek aukeratu ditu, ondoko profesionalak osatutakoa: Petra Joos (Guggenheim Bilbao Museoko Jardueren zuzendaria), Ana Salaverria (Donostiako Koldo Mitxelena erakusketa-aretoko zuzendaria), Jaime Cuenca (arte-kritikaria eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea), eta Miren Arenzana eta Kepa Garraza artistek. Gozatu lan ederrakaz. ◻

LUIS BILBAO LIBANOK NORANZKO BAKARRA

Luis Bilbao Libano kalea noranzko bakarrekoa izango da autoentzat uztailean eta abuztuaren 3ra arte ikus daiteke arte plastikoen erakusketa **ibiltaria** Kultur Leioan

Info+: www.leioa.net

UDAL-BULEGOETAN GOIZEKO ORDUTEGIA

Ordutegi berezia izango dute udal-bulego guztiek irailaren 30era arte, udako oporraldia dela-eta: Kultur Leioa eta liburutegia 08:00etatik 14:30era zabalduko dituzte, KZgunea 09:00etatik 13:00etara, eta Euskara Zerbitzua 09:00etatik 13:30era. Udaletxea eta gainontzeko udal-bulegoak (Bulego Teknikoa, Gizarte Zerbitzuak eta Pinuetako udal-bulegoa) 08:30etik 13:30era arte zabalduko dituzte, irailaren 19ra arte.

Info+: www.leioa.net

LAGUNTZAK LANGILEAK KONTRATATZEKO

Langileak jardunaldi osoz behin-behinean kontratatzeko diru-laguntzak emongo dizkie udalak Leioako enpresei, Lanbideren programa baten bitartez. Beste baldintzen artean, lan-kontratua apirilaren 25 eta irailaren 15 arteko epean sinatu behar da. Prozedura bi egongo dira eta bakoitzak bere dokumentazioa behar du, kontratatzeko hautagaiaren profilaren arabera: laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzeko 9.000 euroko diru-laguntza jasoko dute enpresek, eta aurreko kasuak ez direnak kontratatzeko 6.000 euro. Hautagaitzak baloratzean puntu gehien lortzen duten enpresak lagunduko dituzte.

Info+: www.leioa.net



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Luberr Basolanak, SL
Axe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
TF :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Txaro de la Varga Sanz > Astrabuduko merkatari-elkarteko presidentea

“Astrabuduko bezeroak oso fidelak dira eta hori saritu gura dugu zozketagaz”

Ekimen potoloa abiatu dute Astrabuduko merkatariak: urte oso baterako hileko 500 euroko soldata zozketatuko dute. Merkatari-elkartek 15 urte bete ditu eta bezeroen fidelatasuna saritu gura dute ekimen horregaz.

—Ezustekoa emon duzue ekimen barriagaz, zehazki zertan datza?

—Hileko 500 euroko soldata zozketatuko dugu, 2015 osorako. Elkartearen 15. urterena da eta pentsatu genuen kanpaina bereizgarria egitea, bezeroen fidelatasuna saritzeagaz batera. Zer edo zer desberdina egin gura genuen eta urte osoko soldata bat zozketatuko dugu: gaur arte egin dugun ekintzarik handiena da. Astrabuduko bezeroak oso fidelak dira eta hori saritu gura dugu: merkataritzan oso aktiboa da eta jendeak auzoan erosten du. Krisi egoera honen aurrean apur bat lagundu gura dugu, baita bezeroak inguruko merkatalguneetara joatea ekidin ere.

—Zelan parte har daiteke?

—Elkarteko bazkideen saltokietan erostean txartel bat emongo diegu bezeroei: txartel horrek 18 leihatila dauzka eta, erosketa bakoitzagaz, zigilu bana ipiniko dugu. Behin leihatila guztiak beteta, ekimen honetarako prestatu postontzietako batean laga behar da: merkatuko sarrera



Antzinako anbulatorioan dauka bulegoa merkatari-elkartek

bietan daude, baita okindegi bitan ere.

—Txartel bakarragaz leihatu behar da?

—Ez, pertsona bakoitzak gura beste txartel bete ditzake: zenbat eta txartel gehiago bete, orduan eta aukera handiagoa saria irabazteko. Azaroaren 30era arte banatuko ditugu zigiluak eta zozketa abenduaren 9an izango da, notario aurrean, elkarteko lokalean.

—Zertarako sortu zenuten elkartea?

—Auzoko merkatariak elkartu eta horrelako ekimenak aurrera eramateko asmoz

sortu zen elkartea orain dela 15 urte: bezeroak saritu, bazkideei aholkularitza eta laguntza emon, e.a. Abididez, trebatze-ikastaroak antolatzen ditugu. Finean, Astrabuduko merkataritzan bultzatu eta promozionatu gura dugu.

—Zenbat saltokik edo bazkidek osatzen duzue elkartea?

—105 saltoki gara elkartean. Egia esan, merkataritzan oso aktiboa da Astrabuduan eta negozio sendoak dira: saltoki askok 25 urtetik gora dituzte. ○

Poloniatik Astrabudura

Erandioko **Nazioarteko Folklore** Jaialdian dantzatuko du **Warszawianka** taldeak



Uztailaren 23an izango da jaialdia, Mendiguren plazan

Europa ipar-ekialdeko folklorea ezagutzeko aukera egongo da uztailaren 23an, Erandioko Nazioarteko XXVIII. Folklore-Jaialdian. Warszawianka dantza-taldeak dantzatuko du aurten, Astrabuduko Trabudu taldeagaz batera. Emanaldia Mendiguren plazan izango da, 19:30etik aurrera.

Warszawianka taldea Varsoviako uni-bertsitateko ordezkari da. Errepertorioan dauzka, besteak beste, lurraldeko dantzak eta antzezlanak, Poloniako ohituretan eta errituetan oinarrituta, baita Eguberriagaz eta Pazkoagaz lotutako jarduerak ere. Umeentzako hezkuntza-programa asko

ekoitzi ditu eta hiriburuko ohitura-tradizioen eszenografiak ere egin ditu. Varsoviagaz harremanetan, gaikako eta ongintzako kontzertu asko antolatzen du. Ospakizun entzutetsu ugariara gonbidatu dute taldea, bai Polonian, bai nazioartean.

Bestalde, Trabudu taldea 1976an sortu zen, Astrabudukoan euskal folklorea eta ohiturak indartu asmoz. Gaur egun, ehun kide dauzka eta 350 bazkide baino gehiago. Zazpi lurraldeetako dantzak antzeztzen ditu, betiere herri bakoitzeko dantzatzeko moduei leial. ○

Info+: www.warszawianka.uw.edu.pl eta www.facebook.com/trabudu.dantzaritalea

UZTAILEAN JAIK GOIERRIN ETA ASUAN

Etenik ez Erandion, auzoz auzo eta jairik jairi dabilta aste akaburo. Uztailaren 10etik 13ra, Goierrin ospatuko dituzte *sankristobalak* eta, hurrengo aste akabuan, Asuan. Gozatzeko aukera bietan egongo da: umeentzako jolasak, kirol-probak, goitibeherak, dastaketak, e.a. Goierrin, erromeriak izango dira: barikuan Trikizio taldeagaz eta zapatuan Gora Herriagaz. Goi-Alde dantza-taldeak erakustaldia egingo du domekan, eta herri-bazkaria zein familiarreko kirol-jolasak ere izango dira, besteren artean. Asuan, barriz, hilaren 18, 19 eta 20an egingo dute jaiak. Barikuan, bilbainadak eskainiko ditu Beti Aurrera taldeak eta dantzaldia Akerbeltzek. Zapatuan, barriz, sukalki eta tortilla-txapelketak egingo dituzte, eta dantzaldiak egongo dira: Xaibor eta Egan jardungo dira taula gainean. Domekan amaituko dira jaiak, herri-bazkariagaz.

Info+: www.erandio.net

KULTUR PROIEKTUEN MAHAINGURUA

EHBilduko udal-taldeak EAJren “kudeaketa” salatu du, ohar baten bitartez, euren “*lana oztopatzen duelako eta udala erabiltzen duelako bere “txiringitoa” izango balitz bezala*”. Koalizioak dioenez, Astrabuduko kultur etxeko “*asteburuko kultur ekintzetarako atezainaren kontratazio-prozedura ez da egokia izan*” eta horrela “*baieztatu du udal-idazkariak txosten batean*”.

EHBilduk jakinarazi duenez, bertan “*baieztatzen da: kontratazio espedienterik ez dagoela, kontratuaren harpidetza formala falta dela, hartu den konpromisoa irregularra dela eta Administrazioak ilegalki kontratatu zuela*”. Koalizioak dio kontratazioa Inbisa garbiketa enpresaren bidez egin dela (udal-erakinen garbiketa esleitu zitzaion ABBEko kidea), eta atezainaren lanbide-kategoria garbitzailean dela, baina “*bere eginkizuna oso bestelakoa*” dela.

Info+: bildu@erandioko-udala.net

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA



BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Ekitaldi batzuk

- **Uztailak 11, barikua:**
 - Itsasoaren izakien jaitziera (Urgitxieta; 19:00)
 - Txupina (Urgitxieta; 20:30)
 - Akerbeltz erromeria (txosnak; 23:00)
- **Uztailak 12, zapatua:**
 - Urmeentzako jolas-parkea (Urgitxieta; egunero 11:00etatik)
 - Herri-bazkaria (Urgitxieta; 14:30)
 - Deboson Bolero kontzertua (Iberrota; 21:00)
 - Arma Masiva eta Willis Drumond (Urgitxieta; 23:00)
- **Uztailak 13, domeka:**
 - Marmitako-lehiaketa (Urko; 10:00)
 - Basket 3X3 txapelketa (Urko; 10:00)
 - Skate-ikastaroa (Urgitxieta; 12:00)
 - Kazolak aurkeztu (Urko; 13:30)
 - Tiragoma (Urgitxieta; 17:00)
 - Marmitako sari-banaketa (Urko; 18:00)
 - Niña Coyote y Chico Tornado + Arcada Social (Urgitxieta; 23:00)
- **Uztailak 14, astelehena:**
 - Karaokea (Iberrota; 19:00)
 - Demode Quatted musika-ikuskizuna (Urgitxieta; 21:00)
- **Uztailak 15, martitzena:**
 - Familia-kanpaldia (Iberrota; 21:00etatik aurrera)
 - New York Ska Jazz (Urgitxieta; 23:00)
- **Uztailak 16, eguaztana:**
 - Kalejira egun osoan
 - Dantza-emanaldia (Urgitxieta; 13:00)
 - Pintxo-lehiaketa (Urgitxieta; 13:00)
 - Bat-bateko playback (Urgitxieta; 18:00)
 - Plaza-dantza (Urgitxieta; 19:30)

Karmenakaz jarraitu

Herriko jaien **ajeagaz segituko dute** Sopelan uztailaren **11tik 16ra arte**



Info+: www.sopelaudala.eus

Sortu berri den Sopela kantari taldeak uztailaren 11n botako duen txupinagaz batera hasiko dira Larrabasterrako jaiak. Gauzak horrela, *sanpedro* jaietako ajearen ostean, auzokideek *karmenakaz* gozaten jarraitu ahal izango dute uztailaren 16ra arte.

Gaueko kontzertuak indartsu arituko dira Larrabasterran urtero legez, Willis Drumond, Niña Coyote y Chico Tornado, Arcada Social, New York Ska Jazz eta Arma Masiva taldeakaz. Hala ere, egunean zehar ere gozamenerako parada egongo da, ekimen ugari egongo

baitira auzoan barrena: kalejirak, herri-bazkariak, tailerrak, ikuskizunak eta lehiaketak, besteak beste. Gastronomiak ere bere lekua izango du jaiotan, ohi legez, marmitako lehiaketa egongo baita uztailaren 13an, domekan, Urkon.

Umeek ere euren programa izango dute, egitarau oparoa prestatu baitute eurentzat: tailerrak, jolasak, karaokeak, puzgarriak, akanpadak, e.a.

Jai-Batzordeak ahalegin berezia egin du Larrabasterrako jaiak indartzeko, egitaraua ikustea besterik ez dago; horrenbestez, zapia jantzi eta gozatu! ○

Sonia Cuesta > frackingaren kontrako mugimendua

“Instituzio guztietan kexatu eta frackingaren kontra agertu behar dugu”



Uribe Kostan haustura hidraulikoaren kontrako plataforma bakarra dago: Fracking Ez Getxo

Sopelako Udala frackingaren kontra agertu da berriro, eta, iaz *“fracking gabeko herria”* izendatu ostean, praktika horregaz lotura duten baimen guztiak bertan behera uztea aldarrikatu du. Hala ere, haustura hidraulikoaren kontrako taldeek nahikoa ez dela eta gehiago egin behar dela uste dute.

—Zer iritzi duzu Sopelako Udalak hartutako erabakien inguruan?

—Lehenagotik eraman behar zituen aurrera, eta herria informatzeko ahalegin handiagoa egin beharko luke. Nire auzokideek ez dakite ezer gai honen inguruan. Ez dakit udalak zer edo zer egin duen informatzeko, baina nik ez dut ezer jaso euren partetik. Hartu berri dituen inizatibei erreparatu, oso polita da hauteskondeei begira, baina ez da nahikoa. Eusko Jaurlaritzan presio handiagoa sartu behar da, eta ondoren Madrileko Parlamentuan *kaña* emon. Instituzio guztietan kexatu beharra dago.

—Jendea gero eta arduratsuago dago frackingaren inguruan herrian?

—Ni baiezkoan nago. Hasiera batean, kalera irteten ginen frackingaren nondik norakoak azaltzera, eta jendeak ez zekien ezer horren inguruan. Orain, Fracking Ez! Plataformak bideratutako herri-ekimen legegilearen aldeko sinadurak biltzera goazenean, jendea zuzenean gugana etortzen da sinatzera. Horrenbestez, badi-rudi jendeak kontzientzia hartu duela.

«Herri bakoitzean frackingaren kontrako talde bat behar da»

—Zerk eragin du kontzientziazio hori? —Suposatzen dut horren emaitza frackingaren kontrako mugimenduei esker izan dela. Hedabideek ez dute askorik esaten horren inguruan, eta instituzioek ere ezer gutxi egin dute orain arte. Ez dut uste horiek gizartea informatzeko ahalegin handirik egin dutenik, eta udal gehienek ere ez dute ezer egin. ○

OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaiak, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentabu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA



**zure
publizitatea
hemen!**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
 - Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
 - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

ANDER DEVNA iKASOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

UDAKO ORDUTEGIA HARTU DU LIBURUTEGIAK

Uda heltzeagaz batera, udako ordutegia hartu du Berangoko liburutegiak. Gauzak horrela, gura duenak goizeko 8:30etik arrastiko 15:00etara arte izango du liburuak hartzeko tarte; arratsaldeetan itxita egongo da. Uztaileko 28tik irailaren 5era arte, berriz, itxita egongo da oporrek direla eta. Jakinarazi dutenez, tarte horretarako 6 liburu hartu ahal izango dira gehienez maileguan.

BIRZIKLAPENERAKO POLTSAK BANATZEN

Berangoko Udalak etxebizitzetan bereizketa eta birziklapena bultzatzeko programa jarri du martxan. Horretarako, etxean birziklatzeko poltsa bereziak banatzen hasi dira. Hasiera batean ekainaren 15ean banatu zituzten, baina orain tokiko udaletxean ere eskuratu daitezke. Horiek lortzeko baldintzak: Berangon bizitzea eta 5. edukiontzia zerbitzuan apuntatuta egotea da. Poltsen kopurua amaitu arte banatuko dituzte.

Info+: www.berango.net

uk
zurre
publizitatea
hemen!
944 911 337 - publiuk@aldizkaria.biz

Epertikere kultur elkarteak > Berango berpizteko sortua

“Berangon ez dago gazteok alkar topatzeko inolako aukerarik”



Izaro Brea, Maite Mentxaka eta Ander Herranz, taldekideetako batzuk

Berangon gazte-giroa berpizteko eta gazteen topalekuak sortzeko asmoz sortu zen iaz Epertikere kultur elkarteak. Ibilaldi laburra du momentuz, baina ideiak soberan dituzte euren helburua lortzeko. Hala ere, horretarako elkarte guztien arteko elkarlana beharrezkoa dela aitortzen dute.

—Epertikere kultur elkarteak sortu zenuen pasa den urtean, zein izan da zuen helburua?

—Berangon gazteak biltzen ez direla eta gazte giroa ez dagoela ikusi genuen. Aspaldian bazegoen giroa herrian, baina gaur egun dagoena ez da gaztea; izan ere, herriak berak ez du aukerarik ematen gazte giro hori sortzeko. Udalak ezer egiten ez zuenez, elkarte hau sortzeko beharra ikusi genuen, egoerari buelta ematen saiatzeko. Beno, kontua da herrian badaudela gazteak egiteko, hala nola, tailerrak, jolasak eta jaiak; baina jendeak ez du horietara jotzen. Orokorrean komunikazio falta dago, eta haur zein nagusiei

bakarrak zuzenduta dago eskaintza hori. —**Beste talderen batez harremanetan ipini zarete lan egiteko?**

—Herriko taldeekin harremanetan jarri ginen elkarlanean aritzeko, baina gutxi batzuek erantzun digute, eta horietako

«Gazteak hurbiltzeko eta batzeko aukerak eskaini nahi ditugu»

askok esan ziguten ez zutela behar gure laguntza. Momentuz ez dugu hedapen handirik izan.

—**Tarte honetan zer jarduerak antolatu duzue?**

—Hasieran, dirua ateratzeko zozketa bat egin genuen, bertoko produktuak, eta oso arrakastatsua izan zen. Hala ere, ez zen nahikoa izan benetan gauzak egiten hasteko. Hala ere, aurrera begirako hainbat proiektu ditugu buruan: jaietako kuadrillen jaiak berreskuratu, futbito txapelketa, bertoko ondarea eta bitxikeriak erakusteko ibilbideak, e.a. ○

Info+: epertikere@gmail.com

Marian Izagirre Aizpeolea > Chernobil Elkarteak

“Umeen osasunak nabarmen hobera egiten du gurera etorrira”



Info+: asociacionchernobilelkarrea.blogspot.com.es

Hamar urte baino gehiago daroatza Chernobil Elkarteak Txernobilgo umeak gurera ekartzen. Tarte horretan, guztira, 4.234 harrera egin dituzte, adingabeen bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Izan ere, urtero bi hilabetez bakarrik erradiazioetik urrun bizitzeak umeen osasun fisikoa eta psikikoa suspertzen duela frogatu dute.

—Guztira, 233 ume ekarri dituzte gurera. Horietatik, zenbat geldituko dira Uribe Kostan?

—Eskualde honetan 13 familiek parte hartzen dute programan, eta orotara, 14 neska-mutil hartu dituzte.

—**Bi hilabete hauetan zelako ekintzez gozatuko dute umeek?**

—Gure elkartearen programaren helburua gurera etortzen diren umeen osasuna hobetzea da, euren jaioterrian bizi duten erradiazioetik urrun denbora tarte batez bizitzeko aukera eskainiz. Horregaz batera, adin txikiko hauek euren autoestimua sendotzen dute, jasotzen duten laguntza psikologikoa handia baita. Hori dela-eta, gu-

ra datozen umeek osasun fisikoa eta psikikoa hobetzeko aukera dute. Bestalde, beste kultura eta hizkuntza bat ezagutzeko aukera dute Euskal Herriko familia-kaz. Gainera, harrera programa honetan, hainbat jarduerak antolatzen ditugu eurentzat, hala nola, bisita gidatuak, jolasak eta tailerrak. Horietan, umeek elkarrengoz egoteko aukera dute, esperientziak konpar-

«Udan hainbat ekintza antolatzen ditugu umeen gozamenarako»

titzeko eta euren hizkuntzan aritzeko. Horietan, gainera, Ukrainako hainbat begiralek parte hartzen dute.

—**Programan parte hartzen duten familia gehienek esperientzia errepikatzen dute?**

—Gure helburua harrerak jarraikorrak izatea da. Horrela, familia batek ume bera hartuko luke hori adinez nagusia izan arte. Egoera hau ia familia guztietan jazotzen da. Umeek ere esperientzia errepikatzen nahia izan ohi dute.○

OSABIDE HORTZ KLINIKAK

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



UKnatura

ZITEK PORTUGALSTE
ESUELA SUPERIOR DE NAUTICA, PORTUGALSTE
MARIA DIAZ DE HARO, 68
48900 PORTUGALSTE (BIZKAIA)

2013-2014 KURTSOA

- *BIOERAKUNTZA TAILERRAK
- *ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- *BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- *ENERGIA BERRIZLAGARRIAK
- *HERAZI KAYAK

ETA AGOZ BEHARRO.

www.uknatura.org 092705471 / 646742241



Harrizteko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor Ianda 4, Sopela
Telf.: 946026779

ENPRESA BARRIAK BULTZATZEKO GUNEA

Uribe Kostako Behargintzak enpresa-gune barria jarri du martxan Urdulizen, tokiko udalak utzitako leku zaharberri batean. Bertan, sortu berri diren inizatiba enpresarialak egon ahal izango dira. Horrela, ekimen horren bitartez, enpresa horiek bultzatu eta pertsona ekintzaileen arteko sinergiak hobetu gura dituzte. Guztira 6 enpresa-inizatiba hartuko ditu gune barriak. Horiek, urte biz egon ahal izango dira bertan gehienez.

Info+: www.urkobe.net

SANTA MARIÑEKO JAIK URDULIZ

Uztailaren 19an eta 20an festarako momentua helduko da Urdulizera Santa Mariñeko jaiakaz. Zapatuan, tortilla-lehiaketa izango da nagusi, kuadrillen jokoakaz batera. Hurrengo egunean, domekan, barriz, Santa Mariñe baselizaraino igo eta meza nagusiaren ostean, hainbat dantza taldek ikuskizuna eskainiko dute Antsonekoa plazan, 18:00etan.

UDALERRIETAN ENERGIA AURREZTEKO LAGUNTZAK

Bizkaiko Ingurumeneko Foru Sailak energia aurrezteko, energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarrietarako 54 diru-laguntza esleitu dizkie hainbat udal eta mankomunitateri, tartean, Berango, Erandio, Gorliz, Sopela, Urduliz eta Barrika.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Uribe Kosta

Uribe aldeko txakolina ezagutzeko eta dastatzeko urteerak



Eskualdean hainbat upategi daude

Bizkaiko txakolinaren historia eta ezau-garriak zuzenean ezagutzeko aukera dago daborduko. Izan ere, irailaren 20ra arte, Txakolibusa izeneko ekimenaren bitartez Uribe Kostako eta inguruetako udallerri, ondare eta upategiak bisitatu ahalko dira. Irteerak Bilboko plaza Zirkularretik izango dira, goizeko 09:30ean, eta bisita guztietan gidari bat joango da bidaiariakaz batera. Bisita bakoitzean bodega bi eta leku turistikoren bat bisitatu da. Inizatiba honen prezioa 19 eurokoa da helduentzat, eta 10 eurokoa 65 urtetik gorakoentzat eta 9-15 urte artekoentzat; 8 urtetik beherakoek, berriz, ez dute sarrerarik ordainduko.

Uztailaren 19an, zapatua, Butroe gazteluko inguruak ezagutu ahal izango dira Txakolibusagaz. Ondoren, Gatikara joango dira Butroi Upategia bisitatzeko. Horren ostean, Plentziako alde zaharra bisitatu dute eta bertan dagoen itsaspeko upategia ezagutu dute. Hu-

rrengo urteera abuztuaren 9an egingo dute, eta horretan Gaztelugatxe eta Bakioko Abio Txakolina ezagutu eta Gamiz-Fikara egingo dute salto, Txakoli Urtareren Upategiko ardoa dastatzeko. Ondoren Mungian bazkalduko dute.

«Uribe aldeko txakolinaren historia eta ezaugarriak ezagutzeko urteerak egingo dituzte, autobusez»

Azkeneko bisita, irailaren 20an izango da. Lehenengo eta behin, Mungiako alde zaharra ezagutuko dute, ondoren Bakioko Ados Basarte Txakolina dastatuko dute, eta jarraian Zamudiora hurbilduko dira, Magalarte Zamudio Txakolinaren nondik norakoak ezagutu ahal izateko. Horren ostean, Sopela eta Berango ezagutzeko aukera egongo da. ○

Info+: servitur@stipaisvasco.com
946 071 707

Uzt. 9 - Uzt. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Jazz for two (Jose Hornaren argazkiak)**. Uztailaren 20ra arte. Satisfegi kafean.

► **Itxaso Zubiaren margoak**. Uztailaren 27ra arte. Algortako Torrene aretoan.

PLENTZIA

► **Mani: Tierra de piedra y tiempo**. Uztailaren 30era arte. Gofñi Portalan.

ANTZERKIA

GETXO

► **La risa es bella**. Uztailak 12, 19:00etan. Neguriko Gernika parkean. Doan.

GORLIZ

► **Ay Carmela**. Uztailak 18, 22:00etan. Elizako plazan.

► **Zura hari-hirukotea**. Uztailak 19, 20:00etan. Eleizan.

MUSIKA

ERANDIO

► **Iron what? (Iron Maidenen omenez)**. Uztailak. 12, 22:00etan. Altzagako ontziralekuan. Doan.

► **Bounce (Bon Joviren omenez)**. Uztailak 19, 22:00etan. Astrabuduko Josu Murueta plazan. Doan.

► **Nazioarteko folklore jaialdia**. Uztailaren 23an, 19:30ean. Astrabuduko Mendiguren plazan.

GORLIZ

► **Lirain Abesbatza**. Uztailak 12. Andra Mari kaleko 5. ean.

► **Petti & Sonic Trash Friends**. Uztailak 17. Xurrut tabernan.



Smokin' Joe Kubek Band eta Bnois King

► Musika

Getxoko XXVI. Nazioarteko Blues Jaialdia

Uztail erdialdera iritsiko da Blues Jaialdia, hilaren 17tik 19ra. Algortako Biotz Alai plazan izango dira kontzertu handiak, baina The Piper's Irish Puben ere Medicine Blues saioa egingo dute uztailaren 19an, 23:00etan. Jaialdiko emanaldiei dagokienez, ondoko taldeak entzun ahaliko dira Algortan: uztailaren 17an, egunean, Victor Aneiros Band eta Julie Guravich; hilaren 18an, Smokin' Joe Kubek Band eta Bnois King; eta 19an, zapatuan, *Chicago Blues: A living history* ikuskizuna eskainiko dute Billy Boy Arnold, Billy Branch, John Primer, Lurrie Bell, Carlos Johnsonek, The Living History Band-egaz batera. Kontzertu guztiak hasiko dira 21:00etan.

• **Non:** Algortako Biotz Alai plazan • **Noiz:** Uztailaren 17tik 19ra

PLENTZIA

► **Kontzertu korala**. Uztailak 18, 20:00etan. Elizan.

► **Kantujira**. Uztailak 15, 18 eta 22. Alde zaharrea.

ZINEMA

ERANDIO

► **El llanero solitario**. Uztailak 11, 22:00etan. Astrabuduko Josu Murueta plazan. Doan.

► **Oz: un mundo de fantasia**. Uztailak 18, 22:00etan. Altzagako irailaren 23a plazan. Doan.

BARRIKA

► **Futbolin**. Uztailak 11, 22:00etan. Pilotalekuan. Doan.

► **Blancanieves y la leyenda del cazador**. Uztailak 18, 22:00etan. Pilotalekuan. Doan.

GORLIZ

► **Las brujas de Zugarramurdi**. Uztailak 12, 22:30ean. Pilotalekuan.

BESTEAK

BARRIKA

► **Udako liburutegia**. Uztailleko eta abuztuko martitzen eta eguenetan, 17:30ean. Txintxilandia plazan.

SOPELA

► **Txirindularitza-lasterketa (junior kategoria)**. Uztailak 11, 16:30ean.

► **Futbito-txapelketa: finala**. Uztailak 11, 20:30ean. Urko kiroldegian.

► **Basket 3x3**. Uztailak 12, 10:00etatik 18:00etara. Urkon.

► **Bisita gidatuak: Sopolako labarrak**. Uztailak 12, 11:00etan. Turismo bulegotik. 3 euro.

► **Txirindularitza-lasterketak**. Uztailaren 19an. Bata, 23 urtez azpiko kategoriakoa, 10:00etan. Bestea, Larrabasterrako Karmen saria, 16:00etan.

► **Euskal Herriko surf-txapelketa (txikiak)**. Uztailak 23, egun osoan. Arriatera hondartzan.

ERANDIO

► **Aisialdi eta abentura ekintzak**. Uztailak 12, 11:00etatik 14:00etara. Astrabuduko Mendiguren plazan. Doan.

► **Olgetan jolas**. Uztailak 13, 18:00etan, Goierri; eta 19an 11:30ean, Asuan.

► **Astrabuduko fotoclub-en argazki-urteera Iruña-Okara**. Uztailak 20, 08:00etan. Astrabuduko taxi-geltokian.

LEIOA

► **Ibilbideak piraguan, itsasadarretik**. Uztailak 18, 09:00etatik 14:00etara. Izena emoteko: gazte@leioa.net. 20 eta 45 euro artean.

GORLIZ

► **Itsasgira bisita gidatua**. Uztailak 20, 11:00etan. Hondartzape aurrean. 5 euro.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



[albuma]



Jauntxoan garaian...

Martiatuko dorrean ba ei zegoen jaunik, behintzat horrela islatu dute Difusa elkartek azken antzezlanean: *Martiatuko jauna*. Komedia da eta dorrearen inguruan izandako bandoen arteko gerretan oinarritzen da, XIII. eta XIV. mendeetan. Difusa kultur elkarteak antzerki amateurra egiten du eta obra honetarako erandioztarren laguntza izan du. Ekainaren 27an estreinatu zuten Altzagako azoka zaharrean.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





La Perla

bainuetxea, Ereaga hondartzan

La Perla entzun eta erlaxatzen gara, burura datozkigu itsasoko ur berotua, txorroak, lasaitasuna... bidaia atsegina egiten dugu, ametsetan baina itzartuta. Orriotara dakarkigun La Perla, ordea, ez da Donostiakoa, baizik eta Getxokoa. Ereaga hondartzan zegoen bainuetxe hori Igeretxe hotela eraiki baino lehen. 1887an zabaldu zuten eta 126 metro koadro zeukan, Neguriko etxetzarretako bizilagunen gozagarri. Halere, ez zuen bide luzea egin: itsasoak, apurka, etxolak eta eraikina igatu zituen, eta urte batzuk beranduago eraitsi zuten, 1912an. Handik urtebetera Igeretxe bainuetxeak hartu zuen La Perlaren lekua.

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Gaur egun Berangon bizi den Maritxu Arroyo Cruz (Areeta, 1979) Bizilurreko kideak EHNE-Bizkaiagaz elkarlanean aurkeztu berri duten *Bide Berriak: Elikadura burujabetza Euskal Herrian* dokumentalaren barrunbeetara eroan gaitu. Biologia ikasi zuen, eta azken 8-10 urteotan Gobernu Kanpoko Erakundeetan eta gizarte mugimenduetan jardun du, liberatu. Zenbait urtez kanpoan ibili da: Bolivia, Filipinak zein Mexikoko hainbat egitasmo sustatzen; orain dela 5 urte inguru itzuli eta, bertoko hezkuntza eta garapenerako proiektuak bultzatzen dihardu, besteak beste, Bizilurren.

Maritxu Arroyo

Bide berriak jorratzen eta zabaltzen

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Hainbat urte daroatzazu Bizilurren, zein da zure egitekoa?

—Bizilur asanblada bat da. Eurekin lanean hasi nintzen Mexikon nengoela: Chiapasen, mugimendu zapatistaren proiektu batean. Handik bueltan, asanbladan parte hartzen hasi nintzen; gero, orain dela urte eta erdi inguru, liberatu jardunean hasi nintzen. Batez ere Mexikon izan nituen Via Campesinagaz lehenengo harremanak, eurekin eta inguruko mugimenduekin. Eta gitxi gorabehera Bizilurren egiten duguna hori da: batez ere, Via Campesinakoekin eta mugimendu zapatistarekin egiten dugu lan. Via Campesinaren barruan EHNE Bizkaia ere badago, Euskal Herriko Nekazarien sindikatuaren Bizkaiko atala, alegia. Euskal Herri mailan, oro har, sindikatuarekin elkarlanean daramatzagu proiektu guztiak. Lankidetzan horretan kokatzen da aurkeztu berri dugun dokumentala ere.

—Zelan sortu zen *Bide Berriak: Elikadura burujabetza Euskal Herrian* dokumentala egiteko ideia, egitasmoa? Zein beharri edo gabeziari erantzun gura die? —Orain dela lau urte inguru, Bizilurreko asanbladan, EHNE Bizkaiarekin batera, konturatu ginen ez geneukala tresna errazik ez erabilgarririk gure proposamena zabaltzeko eta elikadura buruja-

etorkizuna dokumentala egin genuen. Batez ere Latinoamerikan eta Euskal Herrian, nekazaritza arloan arazo oso antzekoak ditugu, eta azken finean, proposatzen diren alternatibak ere oso antzekoak dira. Munduan nekazarien arazo handiena eredu kapitalistak berak eragiten du... Ondoren, pentsatu genuen, edo konturatu ginen, bertoko egoera azaltzeko ba-

“Elikadura burujabetza ez da bakarrik produktuak ekoiztea eta kontsumitzea, baizik eta bestelako eredu bat da”

betza zertan datzan azaltzeko. Elikadura burujabetza kontzeptua, azken urteotan, jendartearen asko hedatu da, baina, konturatu ginen, gure sektoretik kanpo, jendeak ez zekiela zehazki zer zen, ez zuela ondo ulertzen, errealitatean nola gauzatzen den... Hala, orain dela urte bi, nazioarteko ikuspuntutik, *Gure lurra, gure*

liabide bat ere beharrezko geneukala, elikadura burujabetzarako eta horri lotutako bertoko alternatibak ezagutarazteko. Euskal Herrian arlo horretan ekimen asko daude, azken aldian horien berri asko hedatu da, eta hainbat jende eta kolektibo dagoeneko halakoak garatzen dabil-tza. Eta horiek guztiak erakusteko, ikus-



entzunezko baliabide bat, dokumental bat edo, egitea eta eskaintzea bururatu zitzaigun; elikadura burujabetza Euskal Herrian zer den azaltzeko, nekazari-mugimendutik (ez bakarrik baserritarrena, herrietako eta hirietakoena ere bai) zer proposatzen dugun adierazteko eta abarrrerako. Esperientziaren bidez azaldu nahi genuen, hala, dokumentala oso praktikoa da. Elikadura burujabetza kapitalismoaren kontrako alternatiba dela erakustea eta transmititzea da gure asmoa; eredu justuago, sozialago eta jasangarriagoa delako, eta gainera, ez da utopia guretzat! Errealitatea da Euskal Herrian, eta erakusten gabiltza alternatiba hau eraikitzen gabiltzala Iparraldetik Hegoaldera, esperientzia edo ekimen asko daudela.

—**Dokumentalaren aurkezpenean dienez:** *“Elikadura ekoitzi eta kontsumitu baino gehiago da, antolakuntza eta harreman desberdinak eta justuagoak eraikitzea da (...) Gure plateretan egunero jartzen ditugun elikagaien jatorria eta hara heldu arte ibilitako bidea, ekoizpen-bideak, ahalegina e.a. gure begien aurrean jarriko duen pelikula...”*

—Batez ere erakutsi nahi duguna da Elikadura burujabetza ez dela bakarrik produktuak ekoiztea eta kontsumitzea, baizik eta bestelako eredu bat dela. Eredu berri horretan, pertsonak kokatzen dira erdigunean, ez dirua! Horretan oinarrituz, harreman ezberdinak eraikitzen ari gara: baserritarren artean, baserritar eta kontsumitzaile edo pertsonen artean... denok garelako kontsumitzaile, baserritarrek ere bai. Hortik aurrera guk proposatzen duguna zera da: guk antolatzea, guk pentsatu nola ekoizten dugun, nola kontsumitzen dugun, nola ekoitzi eta kontsumitu nahi dugun, eta balore horien arabera sozioekonomia nola antolatu nahi dugun. Hala alda ditzakegulako baloreak. Aipatutako ‘baloreak’ guretzat oso garrantzitsuak dira, eta horiek aldatzea ere bai. Horiek aldatuz gero, aldatu ahal direlako eredu ekonomikoak, eredu sozialak e.a.

Proposamen hori baserritar mundutik dator; guretzat hori oso garrantzitsua da, garrantzitsua delako baserritarrek gizar-teko gune esanguratsu eta garrantzitsu batean kokatzea. Azken finean, eurak dira elikagaiak produzitzen dituztenak eta horiek egunero kontsumitzen ditugu. Baserritarren balio hori berreskuratu behar dugu, eta ez elikagaiak produzitzen dituzte-

“Eredu justuago, sozialago eta jasangarriagoa delako; ez da utopia! Errealitate bat da Euskal Herrian”

lako bakarrik, baizik eta kulturalki eta nortasunari dagokionez ere garrantzi handia dutelako. Dokumentalean alde hori ere aldarrikatzen dugu.

—**Zein da gaur egungo egoeraren diagnostikoa?**

—Hori ere dokumentalean jaso dugu. Eredu kapitalistak kalte handia eragin digu, ez bakarrik nekazaritza munduan, beste hainbat arlotan ere bai. Halere, gauri dagokionez, esan behar da kontsumitzen dugunaren %5 baino ez dela Euskal Herrian ekoizten, baserritarrek ez gara %3 ere, hau da, elikagaien ekoizpena ez dago gure eskuetan, kanpotik ekartzen ditugu... Gainera, prezio oso baxua ordaintzen dugu horiengatik, ez direlako lurrraren eta pertsonen eskubideak errespetatzen eta abar. Eredu kapitalista hone-

“Gazte asko hurbiltzen ari dira beste eredu batean ekoizteko asmoarekin; momentu polita edo bizi dugu!”

tan, baserritarrek asko produzitu behar dutela esan dute, baserritar gutxiago egongo direla eta, hala, gutxi horiek asko produzituko dutenez, asko irabaziko dutela. Kontua da hori gezur hutsa dela! Eta horretaz konturatu gara... Orain, baserritar gutxi dago, baserritarren seme-alabek ez dute bizimodu gogor horretan jardun

nahi... Beraz, ezin dugu guretzako elikagairik ekoitzi ez dagoelako baserritarrik. Egia esan, gaur egun, egoera pixka bat aldatu da: gazte asko hurbiltzen ari dira sindikatura eta lurretara, beste eredu batean ekoizteko asmoarekin; ez bakarrik arlo agroekologikoan lan egiteko, kontu kimikorik eta ez erabiltzea, baizik eta bide eta bizitza duina-eta kontuan hartuko dituen

eredua bultzatzeko, baserritarren lanari duintasuna emanez, baserritarrek “gizar-teko azken mailatik” ateratzeko asmoz. Horrenbestez, momentu polita edo bizi dugula esan dezakegu, behintzat poztasun txiki batez begiratzen diogu etorkizunari. Agian, gaur egun, gazteak hurbiltzen diren sektore bakarra gara; gaztez beteta dagoen sektorea da, ikasten eta bestelako ereduak sortzen dabiltzanak: kooperatibak, kooperatiba mistoak, lur-bankuak, lurak berreskuratzeko auzolanak, bospasei artean baserri bat berreskuratu, saskiak e.a. Alternatiba edo esperientzia asko daude. Alde horretatik, baikorki ikusten dugu gaur egungo egoera eta etorkizuna, baina, hala ere, arazoak egon badaude: ez daukagu lurrik, gazteok ezin dugu lurrik lortu oso garestiak direlako, lur-espekula-

an eskaini ahal izatea, gazteek erabil ditzaten, elikagai osasungarriak eta bertokoak ekoizteko.

—**Euskal Herriko esperientzia eta lekukotza ezberdinak jaso dituzue dokumentalean, horiek ei dira “utopia errealitate bihurtzen” dabilela erakusten dutenak. Baieztapen horrek harritu gaitu, benera, hala da?**

“Irailerako egongo dira kopiak; Uribe Kostan egongo da eskuratzeko edo ikusteko aukera”

—Bai, guk ikusi egiten dugu. Batzuetan entzuten dugu “elikadura burujabetzaren kontu hori Euskal Herrian... hori utopia bat da!”. Guk ezagutzera eman nahi dugu, poliki-poliki, esperientzia txiki askorekin, utopia hori errealitate bihurtzen ari garela. Dokumentalean esperientzia horietako asko agertzen dira, esaterako: Ipar Euskal Herrian, Lurzaindia dago: lurrik kolektiboki erosten ari dira, espekulaziotik kanpo, eta baserritarren esku jartzen, batez ere, gazteen esku utziz elikagaiak ekoitz ditzaten... Edo Idoi-ekimena ere bai; Erriberan sare agroekologikoa sortu dute, gazteak euren amama-aititeren lurrik berreskuratzen dabiltza, eta horrekin batera, antzinako haziak eta Erriberako barietateak ereiten eta berreskuratzen ari dira... Nafarroako eremu hori industria-

gune oso indartsua da eta oso gogorra da han beste eredu bat abian jartzea, baina badabiltza gazteak horretan; Bizkaian, Esnetik kooperatiba mistoa dugu, horren bazkide dira ekoizleak, kasu honetan artzainak eta kontsumitzaileak beraiek, eta guztien artean sektore hori berreskuratzen ahalegintzen ari dira... Bizkaian ardi latxa daukagu, eta galbidean zegoen ez zelako

dute igoera horretatik hainbeste jasotzen... Dokumentalean hainbat eta hainbat esperientzia jaso ditugu, baina asko kanpoan lotu dira. Esan behar dut, esperientziak ezagutzera joan ginenean, dokumentalaren sortze-prozesuan, polita izan dela ikustea guk uste baino esperientzia askoz gehiago daudela; jendea mugitzen ari da...

—**Uribe Kostako lekukotzaren bat ere jaso duzue, ezta?**

—Bai, esaterako, Uribe Kostako agroa-sanblada agertzen da: orain dela bizpahiru urte sortutako taldea da, jende gaztea da, nekazaritza mundutik hurbil edo elikagai arlo inguruan dabilena, eskualdean lantzeko lurrik aldarrizteko eta batu ziren... Uribe Kostak ere bere elikagaiak produzi ditzan aukerak sortzeko, alegia. Horrez gainera, Tosuko ortu okupatuaren esperientzia ere agertzen da. Uribe Kosta leku turistikoa baino beste ezer ez dela, baserritarren munduarekin zerikusirik ez duela eman dezake... Baina, ez da egia! Hemen ere bada nekazaritza bizi nahi duen jendea; oster, hori Uribe Kostan oso-oso zaila da, espekulazioaren eredu ez doala bide horretatik... Bestalde, lan honetan agertzen ez bada ere, ezagun zaigu Azkorriko baserritarren, batez ere horreko auzo elkartearen, emakumeen kasua: bere bizimodua mantentzeko borrokan ari dira, Azkorri gure baserri-oasi legez mantentzeko. ○

Dokumentala non?

—**Aurrerantzean, beste herriren batean aurkezpenak egiteko asmorik baduzue? Zelan edo non lor daiteke dokumentala?**

—Billboko Kafe Antzokian aurkeztu genuen, Zerainen ere (bideoan jasotzen den esperientziatiko bat da: bertan elikadura burujabetza modu integralean garatu dute, udalak ere parte hartu du

prozesuan, guretzat eredu den herria da...), baita Donostia eta Gasteizen ere aurkeztu dugu. Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da; orain, dokumentalari azken ukituak ematen ari gara: frantsesezko azpitituluak jartzen, azken xehetasunak e.a. Aurreikusten dugu irailerako kopiak edukitzea, eta hortik aurrera herrietara zabaltzea; oraingo, ez daukagu

beste aurkezpen-data finkorik. Hori bai, Uribe Kostan egongo da eskuratzeko edo ikusteko aukera. Kolektiboek ahalik eta gehien erabiltzeko tresna izatea nahi dugu; doakoa da, kolektiboek eta nahi dutenei helaraziko diegu, gura izanez gero Bizilurrekin edo EHNE Bizkaiarekin harremanetan jar zaitezke... eta ahalik eta gehien heda eta zabal dadila!



Islandia

Barrikan bizi den Gari Bilbao Bollado (Getxo, 1972) Ordesan argazkiak egiten zebilela, zoriz ezagutu zuen lagun batek Islandian “argazkilaritza-egonaldiak” antolatzen zituztela kontatu zion. Iragan udagoiengan sei eguneko bidaia ikusgarria egin zuen, argazkiok lekuko. Zorte handia izan zutela kontatu digu, gau gehienetan aurora borealak (iparraldean ikus ohi dira, oro har, berde kolorekoak) ikusteko aukera izan zuten, eta behin aurora australak izan ohi dituen koloredun bat (gorri, laranja, hori) ere bai. Gaueko ez gainera, eguneko zeruaren koloreek, sasoi horretan ilunabarrek ia ordu eta erdi irauteak, Jokulsarloneko izozmendiak hondartzaratzten ikusteak, aldi baterako izotz-kobek eta abarrek sor eta lor utzi zituzten.

Argazkiak: **Gari Bilbao Bollado**







Getxo Aquarium > kantauriar itsas zaldia berreskuratzeko lanean

Gure uretako altxor txikia: itsas-zaldiek irrintzirik ez, baina bizirauteko gogoz

Itsasoko arrainik berezietakoa eta ederrenetakoa da itsas-zaldia. Zaila da ur artean ikustea, desgertzeko arriskuan daude eta Getxo Aquariumen berreskuratzeko ahalegiak egin dira. Animalia bitxi hau ezagutu gura?



GETXO AQUARIUM-ek utzitako argazkia

Hippocampus proiektuagaz kolaboratzen du Getxo Aquariumek, kantauriar itsas-zaldia berreskuratzeko. Munduan 33 itsas-zaldi espezie dago, guztiak desgertzeko arriskuan, eta horietako bi bizi dira Kantauri itsasoan. Getxon *hipocampus guttulatus* espezieko lau ale dauzkate (eme bi eta ar bi) eta ugaltzen saiatuko dira; espeziea berreskuratzeko lehen pausoa litzateke, etorkizunean itsasora bueltatu ahal izateko. Beraz, luzerako prozesua da.

Ugaltzen saiatzeaz gainera, euren bizimoduaz aztertuko dute, izan ere, alor horretan ikerketa gitxi egin da. Orain dela urte batzuk hasi ziren proiektuagaz, baina sutea-

ren ondorioz eten behar izan zuten; duela hilabete batzuk berrartu dute.

Hippocampus guttulatus espezieko itsas-

Emeak arrautzak ipintzen ditu arrak daukan poltsan eta hark ernaltzen ditu

zaldiek 14 eta 20 zentimetro bitartean neurtzen dute, baina Getxokoak gazteak dira eta apur bat gehiago hazi behar dute ugaltzeko.

Ugalketa berezia

Gero, euren gura dutenean ugaltzeko dira: lehenengo bikoteak osatzea da, bizi osorako bikotea izango dena, eta gorritzea hasten da. Ugalketa bitxia da, arrautzak arrak hazten ditu-eta: emeak arrau-



Info+: www.getxoaquarium.com

tzak ipintzen ditu arrak bere sabelean daukan poltsa baten barruan (kanguruaren poltsaren antzekoa litzateke), arrak ernaltu eta bertan garatzen dira itsas-zalditxoak. Hiru eta bost aste bitartean egoten dira aitaren sabelean, eta gero poltsatik zuzenean jaiotzen dira; erditze baten modukoa da, uzkurdu eta guzti (ernalketa denbo-

ra espeziearen arabera da). Kume pila jaiotzen da, milimetro gitxiko zalditxoak.

Etxeko apaingarri

Desagertzeko arriskuan dagoen espeziea izanda, debekatuta dago itsas-zaldia arrantzatzea, baina agindua ez da betetzen beti. Etxeko akuariorako pieza ederrak di-

ra eta apaingarri moduan dauzka jende askok. Bestalde, Asiako zenbait tokitan jaten dira, barbarako, Txinan, Filipinetan, Vietnamen edota Indonesiako; medikuntza naturalean ere erabiltzen dira. Beraz, zaila da espeziea mantentzea.

Gainera, oso ahulak dira eta baldintza oso zehatzak behar dituzte bizirauteko: urak oso garbia behar du, arrainontzian filtro bereziak behar dira, korronte gitxi, e.a. Itsasoan leku lasaieran egon ohi dira eta alga artean, bestela hilko lirateke. Ho-

Debekatuta dago arrantzatzea, baina apaingarri gisa eta jateko erabiltzen dira

regatik, itsas zaldi gehienak tropiko aldeko ur epeletan daude.

Zaila emon arren, Kantauri itsasoan ere topatzen dituzte bizitzeko toki ezkutu eta lasaiak. Areago, iparraldeko itsaso hotzetan ere aurki daitezke itsas-zaldia, tenperatura oso baxuak jasateko prestatuta dauden espezieak. Zaindu beharreko altxor, gizakien esku dago etorkizunean ere distira egiten jarraitzea; baina horretarako, kontzientzia hartu behar da. ○

Eguzkiñe Gil Estepar > Aquariumeko biologoa

“Erakusten dugu itsasoa zaindu behar dugula eta espezie bakoitzak badaukala bere funtzioa ekosisteman”

—Sutearen ostean ahalegin handia egin duzue Aquariuma leheneratzeko?

—Apu bat bai. Akuario gehienak ondo zeuden, ura aldatu behar izan genien zikin zegoelako. Baina ontzi handi bi ia erabat suntsitu zituen suak; halere, bertan zeuden arrain batzuk berreskuratu ahal izan genituen. Adibidez, marrazoak garaiz atera ahal izan genituen eta berehala eroan genituen Gijonera, egunean bertan. Uda honetan ekartzea espero du-

gu. Hiru dira, hemen jaio ziren duela bozpasei urte eta metro inguru neurtzen zuten. Orain handiagoak izango dira eta ikusi behar dugu zenbat ekar ditzakegun. Kantauriarak dira, *alitan* espeziekoak, eta Aquariumeko Kantauri itsasoko gunean egongo dira.

—Gune bi dauzka Aquariumak, ezta?

—Bai. Batean, Kantauri itsasoko ekosistema sortu ditugu, bestean ekosistema tropikalak. Gune bakoitzean hainbat

akuario daukagu eta horietako bakoitzean ekosistema desberdinetako arrainak. Gainera, gela tropikaleko akuariora bertan bizimodu desberdinak ere erakusten ditugu. Hau da, arrain espezie bakoitzak badaukala berezko bizimodu eta babes mekanismoak: batzuk kolorea erabiltzen dute bere inguruagaz kamuflatzeko, beste batzuk gelditu egoten dira beti eta arroka forma hartzen dute, harrapakariak daude, harrapakinak, e.a. Hori dena era-

kosten dugu. Familia bereko baina espezie desberdineko arrainak ere badaukagu, barbarako pailazo arrainak edota zirujano arrainak; pailazo arrain espezie pila dago. Gainera, beste arrain asko daukagu:

—Eta kantauriar gelan zeintzuk ekosistema eta arrain ikus daitezke?

—Kostako ekosistema desberdinak, adibidez, azaleko ekosistema, argia dago eta algak dauzka. Sakoneko ekosisteman, barriz, ilunago dago eta arroak bakarrik daude. badago beste bat hondoa dena, baina sakonera gitxikoa eta, beraz, harea dauka arroak beharrean. Eta beste ekosistema batzuk: marea artekoa, epipelagikoa, portuetakoa, e.a. Azken horretan arrain iragazleak daude, izan ere, portue-

tan janari partikula asko dago eta espezie horiek bertan eroso bizi dira.

—Ume asko etorriko da eta heziketa-helburua daukazue?

—Bai, umetatik haz daitezke kontzientzia hartzen. Erakusten diegu itsasoa zaindu behar dela, ez bakarrik arrainak bizitzeko, espezie bakoitzak bere funtzioa dauka-eta ekosisteman: algarik ez badago arrainek ezin dute jan, oxigenoa ez da berreskuratuko eta guk ezingo dugu arrainik jan...

—Zelan zaintzen dugu gure kosta?

—Hobetu beharra dago. Ohitura dago poltsa bat bota eta esateko: “*Berdin dio! Garbitzaileak jasoko du.*”. Baina haizeak eroanez gero zer gertatuko da? Itsasoan amaituko duela. Adibide hori ipintzen



diegu umei. Asmoa da itsasoko bizitza ezagutaraztea, animaliak eta landareak zelan bizi diren. Horregatik saiatzen gara bertako ekosistemak islatzen eta bertako arrainak erakusten. Hemengo landare eta arrain guztiak bizirik daude, ez dago gezurrezko landaririk. ○



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Zabala 9

ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Haitza arrakalatze bidean Heteroarauaren inguruko gaiak jorrotzen dituen **Arrakalak** dokumentala



DVDa 5 euroan salgai, esaterako, Bilbon eta Portugaleten herriko tabernetan

Haitzaren ertetik, mundua arrakalatzeraz goaz: Bilgune Feministak eta Topatu gazte proiektu komunikatiboak elkarlanean filmatu eta ekoitzi dute *Arrakalak* dokumentala. *"Heteroaraua ardatz, galderak proposatzen ditu: Zer da heteroaraua? Nola egituratzen da bizi garen jendaratean? Nola eragiten digu gure bizitzetan eta harremanetan? Hala, Euskal Herria eremutat hartuta, hainbat elkarriketatuk heteroarauaren inguruko gaiak aztertzen dituzte: familia, identitateak, desira aukerak, sexualgenere sistemak e.a."* Egileek azaldu dutenez, *"Normaltzat saldu diguten haitz zurrin horren errailetan ez gara gustura sentitzen, eta galdera horiei nolabaiteko erantzuna bilatu nahian, Arrakala proiektua jarri dugu martxan. Gai hori lantzen duen ikus-entzunezkorik ez dagoela ikusita euskarri nagusi dokumentala izango duen tresna kutxa"* prestatu dute. Horretan aurki daitezke: dokumentala proiektatu ostean eztabaidak dinamizatzeko galdetegi-

eredua, hainbat sormen lanetan oinarritutako tailer eredua, zenbait lagunek heteroarauaren inguruan egindako idatziaz, ilustrazioak, argazkiak e.a., elkarriketak oso-osorik (gai baten inguruko lanketa zehatzak egiteko baliagarriak) etab. 7 hizkuntzatan itzulitako dokumentalareb aurkezpen jaialdia Donostiako

«Dokumentalaz gainera, gaia lantzeko beste baliabide batzuk ere eskaintzen dituzte»

Dokan ekainean egin ostean, abiatu da *Arrakalaren* bidea. Heteroarau-haitzaren arrakalak azaleratzea helburu, "herriz herri eta esparruz esparru" lanketak egiten hasi dira; Algortako Bilgune Feministak uztail hasieran aurkeztu zuen lana, eta irailerako ere beste zerbait antolatzeko asmoa duela aurreratu du; halaber, Leioako Bilgune Feminista ere ekimenen bat prestatzekotan dabil. ○

Info+: www.arrakala.net

Armintzako portuan

Gaueko 22:00etatik aurrera, **hilaren 19an** izango da **Txapel Reggae** jaialdia



Info+: www.txapelreggae.com

Pasa den urtean jazotako istripu latzagatik, bertan behera lotu zen jaialdia; gerora, urri partean, ohikoa ez bezalako ekitaldia gauzatu arren. Hala, 1990ean abiatutako ekimenak 24. ekitaldia beteko du aurten, eta aurkeztu du daborduko egitaraua, iragarri dutenez, hauxe: Forward Ever Band talde madrildarrak sostengatuko du Jamaikako Mikey General abeslariaren ahots sakona; Donostiako Skakeitan ska, punk eta reggae taldea; Erresuma Batuko Conscious Sounds Feat King General, hau da, Dougie Wardrop / Conscious Sounds ekoizleak King Generalegaz batera jardungo du; Va-

lentiako Sr. Wilsonen ahotsari Thunder Clap Sound Systemek eskainiko dio oinarria; Irie Souljah kataluniarra ere bertan izango da; Glaukoma talde tolosarrak ez du kale egingo; Malagako Cala del Moral-etik Malaka Youth taldea izango da, eta ez da faltako Orabai Perkusio taldea, Plentzia, Gorriz eta inguruotako taldeak girotuko ditu portu zein alboko kaleak.

Horrenbestez, egunean zehar giro ederra izango bada ere, hitzordua egina dago: Armintzako portuan, gaueko 22:00etan, uztailearen 19an, zapatua; ez da besterik entzungo! Reggae, ska... ○


diskoak

Aukhera
Kherau
Gaua Records



Gaizka Andollo, Aitor Esteban Etxebarria, Iker Lope de Bergara, Ibon Ordoñez eta Alex Garcia boskote bizkaitarrak lan berria plazatu du. Folk bandak azaldu duenez, lan honetan "soinua indartu eta biziagotu du, eta esperimentaziorako joera ere nabarmentzen da". Diskoa Gaua estudioan grabatu dute, eta eurak arduratu dira ekoizpen artistikoaz.

AAAA!!!! / Bele Beltzak...
Belako
Belako Records



laz plazaratutako *Eurie* diskoaren ostean, Josu Billela-beitia, Cris Lizarraga, Lander Zalakainek eta Lore Billela-beitiak osatzen duten Mungio taldeak iraupen laburreko lan bi aurkeztu barri ditu: *AAAA!!!!* eta *Bele Beltzak Baina Ez*; lehenengoan, bere alderik gordina erakusten dute; bigarrean, esperimentaziora jo dute.

Ihesaldi Handia
Libe
Bonberenea ekintzak



Lan propioa ondu du Neubat, Sorkun eta Ekon taldeetan jardundako Libe Garcia de Cortazarrek. Ostera, ez dago bakarrik; izan ere, diskoko 11 kantuak sortzeko Joseba Ponce lagun izan du hainbat abestiri forma emoteko, eta doinuei dagokienez, zenbait gasteiztar musikari: Atxus (baxuan), Txus Villalabeitia (gitaran) eta Eneko De Arza (baterian).

birra > zea Mays

lazko azaroan plazaratutako *Da* diskoa besapean, oraindino fresko-fresko, uDA tour birari ekin dio talde bilbotarrak, eta uztailek irailera bitartean kontzertu andana iragarri ditu daborduko. *Sanjuane-tan* Leioan eurek gozatzeko aukerarik izan ez baduzue, eskualdean beste hitzordu bi iragarri dituzte, hurrenez hurren: uztailearen 26an, zapatua, Gorrizen eskainiko dute kontzertua, eta irailaren 26an Sopelan izango dira. Beren-beregi non lekutuko den oholza ez dute aurreratu, baina, gogoko izanez gero, agendan gordetzeko datak horiek! Hamahiru kantuk osatzen dute *Da* diskoa Urdulizko Tio Pete estudioetan grabatu zuten, Jose Lastra soinu teknikariagaz; Dave M. Allen-ek ekoitzi zuen, hura arduratu zen nahasketez ere, Londresen, Club Ralph estudioan, eta Metropolis estudioetan, Andy "Hippy" Baldwin-ek masterizatu zuen.

Info+: www.zea-mays.com/

labean > fito&fitipaldis

Bost urte joan dira *Antes de que cuente diez* argitaratu zutenetik... Iragan urtean Arriagan zuzenean grabatutako lana kaleratu zuten... Eta oraintsu jakinarazi dute kantu barriak sortzen bidean dabiltzala... Hil honetan hasiko dira taldean seigarren lana izango dena grabatzen, Fito Cabrales buru duen Carlos Raya, Javier Alzola, Alejandro Climent "Boli", Dani Griffin eta Joserra Senperenen lan barria udagoienerako iragarri dute. Madrilen egingo dituzte grabazio-lanak, eta Nueva Yorken nahasketak; Carlos Raya ekoiztiko du, Joe Blaney lagun duela.

REBEL TATTOO

Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Eako poesia egunak

Aurten **uztailaren 11n, 12an eta 13an** izango da poesia-ekimena

Hitzordua ohi baino astebete lehenago izango da aurtengoan, uztaileko bigarren aste akabuan. Prest dute daborduko poesiaren eta horretara doazen hamaika uretako ibaien inguruko egitaraua:

Lehenengo egunean, hilak 11, bariakua, Gabriel Arestiren Harri eta Herri: Nondik dator harria? hitzaldia eskainiko dute Karmelo Landak eta Laura Mintegik (20:00; udaletxea); ostean, *Gabrielen lekua* sentikaria oholtzaratuko dute Oier Guillan, Rafa Rueda, Andoni Egaña, Iraia Elias, Ainhoa Alberdi, Naia Membrillera eta Iban Urizarrek (22:30; Eskolondo). Zapatuan, Itsasoa da bide bakarra Eider Rodriguezen berbaldiagaz hasiko dute jardunaldia (11:00; Eskolondo); gero *Parisen bizi naiz* bere lanean oinarri-

«Berbaldiak, poema-errezitaldiak, kontzertuak eta abar Ean»

tutako poema-errezitaldia egingo du Koldo Izagirrek (13:00; Tala); Idazleak irakurle poema-errezitaldiagaz ekingo diote arrastiko txandari Mikel Etxaburu, Mariluz Esteban, Jule Goikoetxea, Luis Garde eta Felipe Juaristik, Joseba Irazokiren doinuak lagun (17:00; Bedarona) eta gauean Imanol Epelderen Etxepare RAP



Info+: www.eakopoesiaegunak.com


kontzertua (22:00; Eskolondo), Mu-To: Txinaraino tunel bat zulatu dantzaldia Laida Azkonagaz (22:30; Eskolondo) eta Oso banda eta Joseba Irazokiren kontzertua (23:30; Eskolondo). Azken egunean, domekan, goizean Arestiren imajinario poetikoa eta genero-erakuntzak solasaldia eskainiko dute Iratxe Retolazak eta Danele Sarriugartek (11:00; Eskolondo), eta Kantu bat zure minari kontzertua Bide Ertzeanek (13:00; moila); arrastian, Iñigo Astizek eta Mikel Ayerbek emango duten *Hondakindegia* lanaren gaineko poema errezitaldiagaz amaituko da ekimena (17:30; Natxituko bolatokia). ○

liburuak



Doministripu Jauna
Leire Bilbao Barruetabeña
Elkar

Antton Olariaga Aranbururen marrazkiek irudikatzen dute idazle ondarroarraren 6-8 urte bitartekoei begirako lan hau. "Doministripu jaunak doministiku egiten zuen bakoitzean, istripu bat gertatzen zen. Herriko kale estuetan zebilela usin egiten bazuen..."



Gizon bat lotan / Gauzak...
Georges Perec
Igel

Idazle frantsesaren hasiberri-tako lan bi, ezagun bezain bereziak, euskarara ekarri dituzte: J. L. Agirrek itzuli du *Gizon bat lotan* eta Itziar Diez de Ultzurunek *Gauzak, 60etako istorio bat*; esperimentalismoan murgildu, Queneau eta Le Lionnaisen Oulipo-ko kide egin baino lehen idatzitakoak.

[kirola]

Maddi Aalla Rotaetxe > eskubaloi-jokalaria

"Etorkizunean eskubaloiak bizi ahal izatea gustatuko litzaidake, Danimarkan adibidez"



Egun Barakaldoko Zuazo taldean jokatzeko du Maddi Aallak, atezain

Lagunek eskubaloian jokatzeko zutela ikusita, kirol hori probatzea otu zitzaion Maddi Aallari 10 urte zituela. Zazpi urte joan dira ordutik, eta daborduko maila gorenean jardutea lortu du. Hasieratik Bizkaiko eta Euskadiko selekzioak aritu izan da. Egun, Espainiakorako hautatzea ere lortu du.

—Uztailaren 9an Espainiako selekzioak joango zara 20 egunez Finlandia eta Frantziara...

—Bai. Hasiera batean astebete egongo gara Guadalajaran dena prestatzen eta elkarrengaz entrenatzen. Ondoren, Frantziara joango gara torneo batean parte hartzera. Horretan, norvegiar, portugaldar eta frantziar selekzioen aurka arituko gara. Ostean, Guadalajarara bueltatuko gara entrenatzen jarraitzera, eta uztailaren 23an Finlandiara joango gara bertoko selekzioaren aurka hiru partida jokatzera.

—Aurretiaz ere horrelako bidaiaren bat egin izan duzu selekzioagaz?

—14 urte nituenean deitu zidaten lehe-

nengo aldiz, baina hori ez zen oso garrantzitsua izan. Aurten berriro deitu zidaten Aste Santuan, eta Ciudad Realera joan ginen astebete entrenatzera eta bertoko taldeen aurka jokatzera.

—Maila horretara ailegatzeko lan handia egin behar izan duzu, ezta?

—Astero hiru aldiz entrenatzen dut, bi orduko saioetan. Horregaz batera, mundu

«Bizkaiko eta Euskadiko selekzioak aritu izanak asko lagundu dit»

honetan hasi nintzenetik Bizkaiko eta Euskadiko selekzioetan egoteak ere asko lagundu dit, domeka askotan ere entrenatzera behartzen nindutelako. Saio horiek oso bereziak ziren, eta atezaintzat entrenamendu zehatzak egiten ziren.

—Zein da zure ametsa eskubaloian?

—Honetaz bizi ahal izatea gustatuko litzaidake, baina horretarako kanpora joan beharko nuke. Hori da nire ametsa: egunen batean Danimarkara joan ahal izatea jokatzera eta horretaz bizitzea. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda




350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, S.L.



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
• IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak "Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik" proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherriko.mitologia.com webgunera jo.

Lamia

Izaki hauei eman zaien irudia neskato politena izan da, ile luzearekin -ile horia normalean-, eta harlauza handien gainean eseri ohi zirenak ibai-ertzetan, ilea urrezko orraziz orraztera.

Haien beste kezketako batzuk irutea, gauzez arropa garbitzea, eta abar ziren. Ondorioz, edertasun paregabeko izaki emeak dira, beren edertasunarekin sentzibilitate gutxieneko gizonaren bihotza ere konkistatzeko gai. Hala ere, ezinezkoak diren maitasunak dira, haien izaera ez delako gizatiarra.

Kondaira

Behin batean, Isturitzeko Laminazulon bizi ziren lamia batzuek, uriartetarren baserriko atea jo zuten, Martzela Urrunetxeakoaren zerbitzuak eskatzeko. Martzela han bizi zen ospe handiko emagina zen. Birritan pentsatu gabe, beharrezko tresnak biltzen zituen poltsa hartu zuen eta ezkutuko koba bateraino joan zen. Han bizi ziren lamiak, arrakastaz betez beren lana. Hurbileko erreka batean garbitu, eta zer ordu zen ikusita, lamiak haiekin bazkaltzera gonbidatu zuten emagina, itzultzeko bideari ekin aurretik. Horrela, janari zapoetsuak eta garai hartarako oso ohikoak ez zirenak jan zituzten.

Aitzitik, Martzelaren atentzioa erakarri zuen zerbait egon bazen, hori lamien ogi zuria izan zen. Zaporetsua zen, eta, horregatik, pusketa bat hartu zuen lamiak ohartu gabe. Pusketa hori poltsikoan gorde zuen etxera eramateko eta bere senitar-tekoei probatzen emateko. Otordua amaituta, bideari ekin zioten, hori bai, aurretik, lamiak, esker modura, urrezko go-



Lamia. Ilustrazioa: Daniel Castello

ru eta txaratila bat eman zizkieten. Aitzitik, Martzelak altxatzeko keinua egin zuenean, ezinezkoa zela ikusi zuen.

«Edertasun paregabeko izaki emeak, harlauza handien gainean eseri ohi dira ibai-ertzetan...»

—“Zurea ez den zerbait hartu duzulako da hori”, erantzun zuen lamietako batek.

Eta emagin gazteak, lotsaturik, aitortu egin zuen ogi zati bat gorde zuela. Ogi zati hori berehala itzuli zuen. Orduan posible izan zuen altxa eta bideari ekitea. Lamiak

lagundu egin zioten bidearen zati batean, zonaldea ezagun bihurtu zitzaion arte.

Han agurtu zuten elkar, eta lamiak emaginari eskatu zioten bidean atzera ez begiratzeko, haien bizilekua sekretupean mantentze aldera. Eta, hain zuzen ere, horixe onartu zuen Martzelak, baserriaren atarian egon zen arte.

Han, oin batek etxearen ateburua zeharkatzen zuelarik, burua biratu zuen, hori egitearekin lamiak eskatutakoa urratzen zebilela ohartu gabe. Une horretan bertan haren aberastasunak erdira murriztu ziren, gorua egurrezko bihurtu zelako. Hori bai, txaratilak urrezkoa izaten jarraitu zuen.

Izaskun Zubiaur > euskara eta kultura zinegotzia

“Erdaldun ugari badaude ere, euskaldun kopuruak gora egin du”

Izaskun Zubiaur Zarraga (Berango, 1966) 23 urte daroatza Berangoko zinegotzi lanetan: 4 urte Ogasun arloan, eta 19 urte Kultura, Euskara eta Kirola arloak zuzentzen. Berangoko zinegotzia izan baino lehen, hartzaindegiko teknikari izateko ikasketak burutu zituen, baina politikaren bidea hartu eta EAJko idazkari hasi zuen ibilbidea.

—Zeintzuk dira euskararen ahuleziak, indarguneak eta erronkak Berangon?

—Berangon etxean euskaraz hitz egiten duten gazteek gaztelaniara jotzen dute katean, inertziaren edota ohituraren eraginez. Gainera, erdaldun elebarraren ehunekoa nahiko altua da udalerrian. Hori dela-eta, helduentzat antolatzen diren jarduerak guztiak gaztelaniaraz egitera behartuta ikusten dugu gure burua. Hala ere, gazte euskaldunen ehunekoak nabarmen egin du gora azken aldian. Horregaz batera, tokiko ikastetxe publikoa D ereduakoa da, eta udalerrian euskaraz jarduten diren bi komunikabide ditugu: UK aldizkaria, euskara hutsean argitaratzen dena; eta Berango Gaur, elebiduna dena. Etorkizunarako, gure erronka nagusia udalerrian euskararen erabilera ume eta gazte euskaldunen artean sustatzea da.

—Hori lortzeko egitasmorik baduzue?

—Etxean jasotzea da euskara eskuratzeko era naturalena. Hori dela-eta, hainbat egitasmo bultzatu ditugu: gurasoentzako euskara ikastaro bereziak, guraso umeak batera jarduerak antolatzea, guraso berrientzako sentiberatze-kanpainak, euskal ereduaren aldeko matrikulazio-kanpainak eta helduei zuzendutako euskara ikasteko dirulaguntzak.

—Eta erabilerari dagokionez, baduzue



Izaskun Zubiaur, Berangoko zinegotzia

ekimenik edo proiekturik martxan?

—Euskara erabiltzeko esparruak zabaltzen jarraitzeko beharra ikusi dugu, eta horretarako zenbait ekimen bideratu dira. Hauek dira ume eta gazteei zuzenduta egiten diren garrantzitsuenak: ludoteka eta ludokluba; udalekuak; eta Aste Santuko eta Gabonetako koloniak. Gune hauek 3 eta 14 urte bitarteko umeentzat sortu di-

“Euskara eskuratzeko era naturalena etxean jasotzea da; hortaz, hori bultzatu beharra dago”

tugu. Gainera, eskolagaz elkarlanean, irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak antolatzen dira haur-liburutegian, euskaraz. Betiko jolasak lantzeko eta txalaparta ikasteko ikastaroak antolatu dira eskolan, patioan euskaraz aritzeko ohitura hartzeko. Katean antolatzen diren ekimen ugari ere euskaraz egiten dira. ○

Berango

Biztanle kopurua
EUSTATEk bi urtetik gorako biztanleak hartzen ditu, beraz: 2006an 6.008 biztanle 2011n 6.970 biztanle.

Euskadunak
2.090 euskaldun, %34,79 (2006)
2.338 euskaldun, %34,26 (2011)

ia-euskaldunak
1.756 ia-euskaldun, %29,23 (2006)
2.204 ia-euskaldun, %31,62 (2011)

Erabilera datuak
Etxean erabiltzen den hizkuntza, EUSTATEn arabera: %8,17 (2006) eta %7,58 (2011)

Harremanetarako:
946 680 008

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.

Especialistas en desayunos abrimos desde las 07:00h. y 08:00h. los fines de semana y festivos



C/Iturgibxi, 13
48620 Plentzia
Telf.: 94.677.31.28
www.cafebarzuazu.com



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



Bat batean eginda japoniar era tradizionalan
www.fugulusarenas.com
Evaristo Churrucua Kaia 2 (lonja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa



GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



Menu ederra itsasoari begira
Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com



Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Zure publia hemen agertzea gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Besamelezko ogi-lorea onddoak eta ganbak tartaletan



Pintxoa Algortako Abian kultur elkartearen tabernan topa daiteke

Uda heldu bezain pronto, kostaldeko ibilbidea jarraitu eta Algortara bueltatu gara. Bertoko kaleetan barrena sartu eta Bidebarri kalean dagoen Abian kultur elkartearen tabernagaz egin dugu topo, haurrentzako, gazteentzako zein zaharrentzako leku ezinhobeia. Izan ere, hainbat dira urtean zehar bertan antolatzen dituzten ekimenak. Hala ere, kultura eskaintzaz gainera, eta eztarria bustitzeko eta pintxo ugari dastatzeko aukera emoten du Abian kultur elkarteak, onddoz eta ganbaz betetako tartaleetak, esate baterako. Horrelako pintxo bat egitea probatu gura? Lehenengo eta behin moldeko ogi zati bat hartu beharko dugu, ertzak kendu eta oragailuagaz oratuko dugu fin-fin utzi arte. Ondoren, berakatz saltsa egingo

dugu. Horretarako, irabiagailua hartu eta ontzi batean hainbat berakatz ale, limoi zukua, arrautza bat eta gatza botako dugu. Ondo irabiatuko dugu saltsa fina lortu harte. Gura duenak almendrak ere bota ditzake saltsa egiteko. Hori eginda dugunean, oratutako ogia saltsagaz buzti, eta tartaletak egiteko molde batean sartuko dugu. Ondoren, aurretik perretxikoz akaz eta ganbakaz egindako besamela tartaletan bota eta labean sartuko dugu. Ogi txigortuta dagoela ikusten dugunean, labetik atera, perrexila bota, moldetik atera, zerbitzatu eta on egin! o

Osagaiak: moldeko ogia, berakatz, olio, gatza, limoi zukua, arrautza, almendra, bexamela, onddoak, ganbak eta perrexila.



94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz



MONTE JAIA 1
48997 GETXO (BIZKAIA)
CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM
91 460 86 48



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA



Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaitan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

uk **zure
publizitatea
hemen!**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Aixerrotako Paelletarako bazkaria antolatzea egokituko zaizu, kuadrillako beste lagun batez. Baina ez gastatu diru guztia edaritan, gorde arrotzerako apur bat...

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Beti zabilza bazterrak nahastan eta azken aste akabuan ederra egin zenuen! Lagunak haserretu zaizkizu eta ez da nahikoa izango barkamena eskatzea; zer edo zer hobe pentsatu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ezezagun baten laudorioak jaso zenituen aurrekoan eta jazaztin zaude. Apalago jokatu beharko zenuke, horrela jarraituz gero, lagunak aldenitu, eta bakarrik lotuko zara-eta.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Sorgin batek eskua irakurri eta barri harrigarri bat iragarriko dizu: zur eta lur lotuko zara eta ez duzu jakingo jaramon egin edo ez. Bada, argi esango dizut: sorginok dena igartzen dugu!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Kanpinera joango zara uda-pasa eta urte guztian ikusi bako lagunak elkartzeko zara. Nahiko aldatuta daude, hazi dira eta oso guapo: udarako amodio-aferearen bat sortuko ote?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Bizikleta barria estreinatuko duzu eta leku guztietara erango duzu. Araoz da ez dagoela bidegorririk leku askotara iristeko: txaleko horia jantzi beharko duzu autoek ikus zaitzaten.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Amamak paga emongo dizu, orain arteko handiena, eta diru guztia tiobitoetan xahutuko duzu berehala. Biharko badakizu zer daukazu: paseoa edo hondartza.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Sasoiko lehen parranden eragina nabaritzen hasiko zara, egunero urtetea ez da batere erraza: kirol arrisksua da. Lasaia hartu beharko duzu, uda luzea da oraindino.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Surf-ikastaro batean izena emongo duzu, baina nahiko traketsa zara. Irakaslea itxaropena galtzekotan ibiliko da baina, azkenean, lortuko duzu taula gainean zutik ipintzea.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zein ondo bizi zaren oporretan, egun osoa hondartzan, eguzkitan, bainatzen eta barkillok jaten. Krema emotea gogoratu, karramarroak baino gorriago ipini gura ez baduzu.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Erabat nahastuta zaude, zer egin ez jakinda: gurasoak Karibera oporretan edo lagunak herriko jaietan lotu... Pentsatu jai mordo egongo dela uda osoan, Kariberako aukera bat bakar.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Hozbera zara gero! Uztailaren erdia joan da eta oraindino ez zara bainatu hondartzan. Zeren zain zaude? Kantauri itsasoa sekula ez da egongo Meditarrenoa bezain bero.



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Gogoratu: 1etik 9ra arteko zenbaki guztiek ageri behar dute errenkada, zutabe eta 3x3 lauki denetan.

5	8				1	4	
				1	7	9	
	4	7	9	3		2	
5	8	3			4		
6			7			3	
	3			2	5	6	
	3		1	9	2	8	
8		5	6				
	7	2				1	4

		2		7	9	6		
		9			8	3		5
8	1				2		4	
7				5			1	9
		4	3		1	8		
6	9			2				3
	4		2				6	8
2		3	7			1		
		5	9	4		7		

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zein animalia da Sakone-an ataleko protagonista?

- Itsas izarra
- Moxala
- Itsas zaldia

La Gusana liburudenda SARIA
 Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 944 911 412 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Hondar edo harea multzoak

> Irabazlea: **Ander Herranz Uribarri**

*deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

Zaindu SARIA
 Osteopatia-Fisioterapia
 Doctor Landa 4, SOPELA.
 Tel: 94 602 67 79 **zaindu**
 Esku Terapio Zentrua

> Aurrekoaren erantzuna: ArgiHizkiak

> Irabazlea: **Ainhoa Barrenetxea**

*deitu telefonoz: 944 911 337

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



SOPELA. HERRI BATEN ALDIUNEAK LIBURURAKO MARIAN PEREZ ANSOLEAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

SOPELOZTARRAK PAELLA TXAPELKETAN, 1965 INGURU

Zipiriñeko landetan (gaur egun eskola dagoen lekuan) egindako paella txapelketan aterako argazkian, horra hor sopoloztar kuadrilla txapelduna! Kopa irabazi eta etxera zeinek eroan erabakitzeke musean jokatu zuten; gaur egun, Orgabide-ondo etxean godeta ei dago. Taldearen atzealdean, erdi ezkutuan, ezkerrean, on Tomas Bustinza abadea dago, betaurreko eta txapelagaz. Dimoztarra Sopolako parroko izan zen gerraosteko urte gogorretan; estualdietan herritar askori laguntza emon zien eta oso estimatua izan zen, hainbat sopoloztarrek akorduan dutenez. Derioko San Isidro elizara aldatu zuten, eta hango parroko izan zen hil arte. Dana dala, Sopolako ospakizunetara etortzen zen sarri. ○


Zutunik: Begoña Bilbao, Mertxe (?), Julio Oleaga, Bizente Garai (kopa eskuan), Marieli Perez Ansoleaga, Mari Carmen Bilbao, Martin Etxebarria eta Inaz Gromaz.

Makurtuta: Juan Torre, Luis Mari Aldekoa (kazola eskuan), Alberto LLorente.

JOSEBA IRAZOKI > gitarrista

“Ezingo nuke egunero berdina egiten duten fabriketan jardun”

Testua: **Iker Rincon**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Tipo alaia, bere lanarekin maitemindu-obsesionatuta dagoena.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Zatoichiko samuraia izan gura nuke.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Itsasoarekin zerikusia duen zerbaitetan. Erakarri egiten naute itsasoko herriek, portuek, e.a. Arraina haragia baino gehiago nahiago dut!

Eta zertan ez zenuke jardun gura?

Egunero gauza berdina egiten pasatzen duten fabrika batean lan egitea kostatuko litzaidake.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Getariko (Lapurdi) hondartza-portua. Txikia eta intimoa da, xarma berezia du.

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?

Madrilgo taberna batean bi garagardorekin txalaparta jotzea, kar kar.

Zure hautzaroko oroitzapen bat?

Lagun arteko sagar borrokak.

Zein da zure ametsetako bat?

Itsasontzi bat edukitzea, eta musikaz luzaro bizi ahal izatea.

Oihukatu duzun azken aldia?

Orain dela hilabete bat kontzertu bat emon ostean, pozagatik.

Gogoko esaldi edo lelorik?

“Erorik ezean zentzudunak ezin bizi”, edo “ez izaki eta bai uste”, “mierda para usted”.

Zerk ematen dizu beldurra?

Ez dut horrelakoetan pentsatzen, orain agian alabari zerbait txarra gertatzeak arduratzen nau gehien...

LABURREAN—Joseba Irazoki (Bera, 1974) konposizioan eta inprobisazioan aditua den gitarrista da. Beti maite izan du musika, eta txikitatik jo izan du gitarra; hala ere, 16 urte bete zituen arte ez zuen bere lehenengo gitarra elektrikoa ikusi. Ordutik musikaren munduan jardun izan du han eta hemen, irakasle, baina baita musikari ere. Gurean ere Irazoki taula gainean ikusteko aukera izan dugu; azkena: uztailaren 4an, Plentziako Mikrofilm Short Festivalean.



ESKUALDEKO KOMUNIKAZIO TALDE BERRIAK KUDEATZAILE BAT BEHAR DU

Hautagaiak aurkezteko epea:
2014ko uztailaren 14ra arte

Bldali Curriculum Vitae-a
helbide honetara:
uk@aldizkaria.biz

info+:
www.beharsarea.net

HAUTAGAIK BEHARKO LITUZKETEN EZAGUTZA ETA EZAUGARRIAK

- Kudeaketan edota zuzendaritzan esperientzia nahikoa izatea.
- Helburuak finkatu, exekutarazi eta jarraipena egiteko gaitasuna izatea.
- Administrazioekin eta sektoreko beste eragileekin harreman onak eta eraginkorrak izatea.
- Eskualdeko, herrialdeko, Euskal Herriko zein beste edozein administrazioetako diru-laguntzen egitura ondo ezagutzea eta bide egokienak markatzeko gaitasuna izatea.

PENTSATZEN GABILTZA.

- Ekonomian, enpresen kudeaketan edo antzeko titulazio edo masterren bat edukiko duen pertsona batengan.
- Euskara ondo menderatuko duen pertsona bat.
- Autoa eta gida-baimena ezinbestekoak izango dira.

URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarria zure etxean
Urte osoan argazki zahar eta barriak
Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
Urtean 20 euro



www.ukaldizkaria.biz



neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK
zure etxean, hamabostero.
Urtean 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

2014
UZTAILA
JULIO

XXVI GETXO BLUES

GETXOKO XXVI.
NAZIDARTEKO
BLUES JAIALDIA

XXVI FESTIVAL
INTERNACIONAL
DE BLUES DE GETXO

Ilustración: Juan Canhal • Diseño: www.lallica.com



BIOTZ ALAI PLAZA (ALGORTA) BIZKAIA

17 osteguna / jueves - 21:00 h.
VÍCTOR ANEIROS BAND
con **JULIE GURAVICH**

Invitados:
BIG MAMA MONTSE,
TONKY DE LA PEÑA,
MINGO BALAGUER
y ROBERTO SOMOZA

6 euros

18 ostirala / viernes - 21:00 h.
SMOKIN' JOE
KUBEK BAND
& **BNOIS KING**

10 euros

19 larunbata / sábado - 21:00 h.

CHICAGO BLUES:
A LIVING HISTORY

Billy Boy Arnold (armónica)
Billy Branch (armónica)
John Primer (guitarra)
Lurrie Bell (guitarra)
Carlos Johnson (guitarra)

&The Living History Band

10 euros

SARRERA SALMENTA 94 491 40 80
VENTA DE ENTRADAS Getxoko Kultur Etxea
(Villamonte, A8 - Algorta)



Sarreraren salmenta:
Venta de entradas:
www.kutxabank.es

Orotarako
kutzazainak
Cajeros
multiservicio



Piper's Pub
MEDICINE BLUES
23:00 h. DOAN/GRATIS

www.getxo.net